

ASTELEHENKO Goienkaria

2007ko azaroaren 19a > Astelehena > III. urtea > 167. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

"Estresak ez
ditu bihotzeko
gaitzak sortzen,
daudenak
azalarazi
baizik"

Garikoitz
Lasa

Kardiologoa > 06



G2a

Bergarako
bandaren diskos
aurkezpena > 23

ARRASATE
Gazteen argazkiekin erakusketa
ipini du Sexologia Zerbitzuak > 09

ESKORIATZA
Viteri dendak 100 urte dituela-eta,
ugazabak omendu zituzten > 13

PREFERENTE MAILA
Aloñak irabazi, Mondrak berdindu
eta UDAk galdu egin du > 16

OSASUNA > GRIPEA

Iaz baino jende gutxiagok hartu du gripeareen aurkako txertoa

DATUAK Kanpaina bukatu
urreko astean, 65 urtetik
gorakoenean %64 inguruk hartu
zuen txertoa ibarrean

ARAMAIO ETA OÑATI

Aramaion, %80k hartu du
txertoa, eta Oñatin, %76k;
beste herrietan, gutxiagok

JAISTEN Orain hiru urte,
gomendatutako populazioaren
%69k hartu zuen txertoa;
geroztik, jaisten joan da > 05

KLIMA > UDAZKENA

Eguraldi epelagoa izango dugu

Udazkeneko egun
hotzena izan genuen
aste bukaeran; atzo
hasi zen epeltzen > 04

Markelen Lagunartearen eskutik, ordu beteko spinning saioa egon zen

Markelen Lagunarteak urte-
ro antolatzen duen denboraldi
amaierako baziaren
aurretik, ordu beteko spinning
saio berezia egin zuten
Oñatiko kirolegian. Han
izan ziren, besteak beste, Mar-
kel Irizar, Iban Velasco eta
Joseba Zubeldia Euskalteko
txirrindulari profesiona-
lak. Irakasle lanetan, Jon Ore-
gi eta Leire Altube ibili ziren.
Gero, baziaren egin zuten
Oñatiko Zott jatetxeen; hara,
familia eta elkarteko lagunez
gain, Haimar Zubeldia Eus-
kalteleko txirrindularia ere
joan zen. > 15



SPINNING Ezkerretik eskuara, Iban Velasco, Jon Oregi, Markel Irizar eta Leire Altube.

JOSETXO ARANZABAL

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05
Elkarritzeta > 06
Iritzia > 07-08
Herriak > 09-14
Kirola > 15-22
Kultura > 23-27
Sailkatuak > 28
Irrati-Telebista eta
Hitzorduak > 29
Berri-zakua > 30-31
Azkena > 32

BERGARA > KULTURA

Amodiozko Gutunen Lehiaketa

Bergarako Jardun euskara
elkartea deitu berri du Amodiozko
Gutunen Lehiaketako
16. ekitaldia. Urtarrilaren 6a da
lanak bidaltzeko mugaeguna,
eta 1993an edo lehenago jaiotako
edozeinek parte hartu ahal
izango du. > 11

LANA > OSAKIDETZA

Osakidetzako ibarreko langileak kexu dira

Osakidetzako hainbat alorreko
langileak haserre dabiltza,
gustuko lan hitzarmena lortu
ezinik dabiltza-eta. Hala,
joan den egunean, hiru orduko
lanuztea egin zuten, eta
mobilizazio gehiago iragarri
dituzte. Oraingo lan baldintzak
hobetzea eskatzen dute.
Euren eskaeren berri hobea-

BERTSOLARITZA > TXAPELKETA

Ibarrekoak, zorte txarra Eskoriatzan

Gipuzkoako Bertso Txapelketa-
ko lehenengo finalaurrekoa
Eskoriatzan jokatu zen zapatu-
tu, eta txapelketako ibarreko
bakarrak, Ainhoa Agirreazalde-
gik, ez zuen egun ona izan eta
azkeneko sailkatu zen. Jon Mar-
tin izan zen lehenengo. > 26



X IZPIAK Iñaki Saenz de Azkunagak teknikari lanetan dihardu.



I.A. MANTENUA Konponketa lanak egiten ditu Roberto Otazuk.



I.A. SUKALDEA Jatorduko, 90 lagun ematen die jaten Josefak.

I.A.

LANA > GREBA OSAKIDETZAN

Ospitaleko lan baldintzeken, langileak, gaixo

LAN KARGA Gaixo kopurua gora joan ahala, lan karga ere gehitu da, eta langileek diote ez dagoela nahikoa jende horri aurre egiteko

SOLDATA Langile batzuetatik besteetara, soldatetan, alde handia dago; batik bat, sendagileen eta gainontzekoen artean

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE
Osakidetzako langileek hiru orduko lanuztea egin zuten eguneean, lan baldintza hobeak eskatzeko. Sindikatuen arabera, Debagoieneko Ospitalean langileen %75ek egin zuen bat grebarekin.

Langileek eskatu dute, besteak beste, langileen soldaten arteko aldea gero eta handiagoa ez izatea; hobekuntzak langile finko eta behin-behinekoendako izatea; funtzoak modu egokian definitzea; gaixoei arreta egokia eskaintzeko, lan erritmoa eta lan karga arintzea; langileak gaztzea; pribatizatutako zerbitzuen lehengoratzea; eta euskarazko arreta ziurtatzea.

OSAKIDETZA
Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburu Gabriel Inclanek esan du sindikatuen eskaerak soilik ekonomikoak direla, eta hauxe gaineratu du: "Ezinbestekoa da datoren egubakoitzean sindikatuetako ordezkariekin egingo dugun bilera ondo ateratzea".

Egueneko grebaren ostean, Debagoieneko Ospitaleko hainbat langilerekin izan gara, euren lan egoeraren berri jakin guran.

Iñaki Saenz de Azkunaga
X IZPIETAKO TEKNIKARIA

"Lan karga handiegia dugu, eta langile gehiago behar da"

Osakidetzan, 15 urte daramatz, eta Arrasaten, hamar urte pasa. Telefonista eta zaindari postuetan jardun eta gero, X izpietako teknikari da orain. Antolakuntza falta eta lan karga handia sumatzen ditu Osakidetzan: "Langile gehiago behar da. Lan gehiago egonez gero, inoiz, teknikoren bat gehiago ipintzen dute, baina gutxitana. Berez horrela lan eginda, gaixoari zerbitzu hobia emanago genioke. Kalean, behin baino gehiagotan entzun dut Debagoieneko Ospitalean ez dela ganoraz lan egiten. Ezin iritsita ibiltzen garela da hori".

Kontatu digu bere lanpostuan, esaterako, "proba bat egitera datoren bat, lepoko katea kentzeko eskatu eta, gero, presaren presaz, ematea ahaztuz gero, zailtasunak izango nituzke bueltatzeko. Lasaigo ibiliko bagina, lana ere errazago egingo genuke".

Hilabetean 12 egunetan egiten du lan, batezbeste, baina 12 orduko da txanda bakoitzta, eta pozik dago ordutegiarekin: "Arraroa dirudien arren, nire ustez, ondo kobratzen dugu; baina Osakidetzako beste estamentu batzuek kobratzen dutenarekin alderatuta, sekulakoa da aldea. Ez deritzot ondo batzuei soldata %40 igoitzea eta beste batzuei, batere ez. Ezberdintasun nabarmenenak sendagileen eta gainontzeko estamentuen artekoak dira".

Iñakik ez du uste grebarekin ezer lortuko denik: "Astebetez denok lanera etorriko ez bagina, orduan hasiko lirateke negoziazioak; gainontzean, jai dugu".

Roberto Otazu
MANTENTZE LANETAKO TEKNIKARIA

"Mantentze lanetan, jende gutxi gabiltza Debagoieneko Ospitalean"

Orain dela sei urte hasi zen mantentze lanetan Debagoieneko Ospitalean. Ospitaleko instalazioak mantentzeaz eta konpontzeaz arduratzen da, zerbitzu egokia eskaintzeko moduan daudela ziurtatzeko. Behin-behineko lanpostua da berea; "oposaketa bidez izendatuko da plaza zeinendako den, eta baliteke nik hartza edo beste norbaitek", dio.

Gabezia asko dago Osakidetzan, Roberto Otazuren esanetan: "Zerbitzu batzuetan, lan karga handiak daude. Gurean, Debagoieneko Ospitalean, mantentze lanetan, jende gutxi gaude. Ni sartu nintzenean, hiru baino ez gin, eta orain sei garen arren, gehiago behar dira".

Bestalde, aipatu digu euskararen kontua ez dela batere zaintzen Osakidetzan: "Ez zaio behar adina garrantzi ematen. Jendea rizerbitzua nahi duen hizkuntzan jasotzea aukera eman behar diogu. Aurreko hitzarmenean, hasi ziren zerbait egiten, baina, praktikan, apena ikusten da".

Soldatak hizpide hartuta, esan digu Osakidetzan kolektibo asko dagoela, eta kolektibo horien arteko ezberdintasunak areagoatu egiten dituela Osakidetzak: "Soldatak igotzeko dirua baldin badago, kolektibo jakin batera bideratzen dute beti, medikuengana". Soldatetan ez ezik, formazioa eskaintzeko orduan, sendagileen eta erizainek gainontzeko langileek baino aukera gehiago izaten dituztela ere esan digu.

Lan baldintzak, oro har, ez dira txarrak, bere ustez, baina zenbait gauza hobetza komenida:

"Jende gehiago lanean ipintzea, opor garaien ere gu ordezkatuko gaituzten langileak ipintzea. Izan ere, askotan, ez dute inor hartzten, eta, oporetatik bueltan, sekulako lan kargarekin egiten dugu topo. Gabezia horiek eragiten dute, esaterako, gure kasuan, mantenu prebentiboa egiteko nahikoa ez izatea, eta aurrez akatsak ikusi ezean, gerora, komponketan, denbora gehiago eman behar izatea".

Egueneko grebak, Roberto-ren ustez, balioko du "Osakidetzari jakinarazteko langileok ez gaudela ados euren politikarekin, eta apur bat presionatzeko".

Josefa Linero

SUKALDARI LAGUNTZALEA

"Berez ez dagozkigun lanak eginarazten dizkigute sukaldari laguntzaileoi"

Osakidetzan, 1988tik dihardu, zaindari modura lehenengo, garbitegian, gero, eta orain, sukaldari laguntzailea. "Arrasaten, hiru urte eta erdi daramatzat. Batez beste, egunean eta jatordu bakotzean, 90 lagun ematen diegu jaten; batzuetan, gehiagorri ere. Esaten digute, 100etik pasatuz gero, lantaldea indartuko luke-tela, baina ez dute esana betetzen". Euren zerbitzuan ez dela apena inbertitzen ere esan digu: "Materiala juxtua daukagu, eta, egunen batzuetan, jateko jende gehiago egon eta material nahikoa ez badago, gertatu zaigu die-tak aldatu beharra".

Euren lantaldea sukaldariko minimoa dela gaineratu digu, eta "berez ez dagozkigun lanak eginarazten dizkigute: ordenagailuko lanak, etiketak egitea... Dietak gertatzeko, langile bat dago, baina ez du gure beharra asetzan, bere kontratua ere murritza delako; hortaz, lan karga handitzen zaigu". Ekonomiko-ki ez ezik, egiten duten lanaren garrantzia kontuan hartuta, gehiago baloratu beharko litzatekeela uste du.

Kalitatea da bere eskari nagusia: "Asistentziarena, lanarena eta baita ekonomikoa ere, gainbehera doa. Ezegonkortasuna dago alderdi horietan guztietan. Sukaldari laguntzaile naizen aldetik, kalitatea eskatzen dut; lan taldeak berrantolatzea lan karga arintzea, azken bi urteotan lana bikoitzu baita, eta horrek eragina du lanaren emaitzetan eta langileon arteko harremanetan. Baino badirudi gure eskaerak ez direla sukaldetik irten".


Grebak eraginen bat izatea espero du Linerok: "Berba egitea ez litzateke gutxi. Badirudi dena ondo doala eta ez dela ezer geratzen, baina arazoak hor dirau".



HARRERA Larrialdi zerbitzura datozenak artatzen ditu Rosak.



EBAKUNTZA Karmele Uribarri, aurrean, ebakuntzarako gertatzen. I.A.



LABORATEGIA Analisiak egiten ditu laborategian Julianek. I.A.

Rosa Velasco

ADMINISTRARI LAGUNTAZALEA

"Ez dut soldata txarra, baina jaiegunetan edo gauetan lan eginda lortzen dut"

Administrari laguntzaile postuan, bederatzi urte daramatzia Arrasaten, aurrez zaindari moduan bes-te horrenbeste egin ostean. Lan karga handiaz kexu da: "Nire pos-tuan lan egiteko, ospitaleko zer-bitzu guztien funtzionamendua-ren berri izan behar da, eta zer-bitzu guziekin komunean jarduten dugunez, bakoitzak berea ahalik eta arinen egitea nahi du, eta ezinezko da. Txanda bakoitzean, langile bakarra gaude, eta, gutxienez, bi egotea beharko genuke edo, bestela, bes-te zerbitzu batzuetara bideratzea hainbat lan". Larrialdietako ospi-taleratzeak eta alta emateak; espe-zialistendako hitzorduak ematea; frogagiriak ematea; unitate batek besterako lekualdaketak; fakturazioa... egiten dituzte.

Librantzak ere aldarrikatzen dituzte; "Txandaka lan egiten dugunez, Zubietan, egun batean ez bada, bestean, lan egitea tokaten zaigu, eta ez dugu jai edo zubi-rik izaten, lankideekin aldatu ezean edo oporretako egunetatik kendu ezean".

Soldaten gainean, zera esan digu: "Ezin dut esan soldata txarra daukadanik, baina oinarriko soldata ez da sekulakoa; jai egunetan edo gauetan lan egite-agatik da handiagoa, baina horrek ez du konpentsatzen nire ohean lo egin ezina".

Lan baldintzak, urtetik urte-ra, okerrera doazela gaineratu digu: "Gure eros-ahalmena galdu dugu; lan karga gehituz doa; eta gure zerbitzuan, sarreran, hasi nintzenean, pertsona bakarra zegoen txandako, eta horrela jarraitzen dugu".

Rosa Velascok ez daki grebak ondorio argirik izango duen. "Sailburuak ez du negoziatzeko interesik azaldu; gainera, langileon aurkako kanpaina egiten dihardu, soldatetan sekulako igerak eskatu ditugula esanez", azaldu digu.

Karmele Uribarri

EBAKUNTZA-GELAKO ERIZAINA

"Ez gaude gertu diru gutxiren truke gure lanaldia luzatzeko"

Osakidetzan 13 urte darama. Basurtun, Gurutzetan, Bilboko anbulatorio baten eta, orain, Arrasaten egon da; 1999tik, finkoa da.

Grebarekin bat egin du, "Osakidetzak eta sindikatuek negozia-tu duten hitzarmena sendagile-en onurarako bakarrik delako".

Ebakuntza-gelan, presio han-dia daukate, itxaron zerrendak direla eta: "Ez gaude nahikoa langile. Irtenbide modura, ohiko ordutegitik kanpo ebakuntzak egiten dira, horretarako gertu daudenei pizgarri ekonomikoa emanet: orduko 18 euro. Gu ez gaude horren truke gure lanal-dia luzatzeko gertu. Beste langile batzuk hartzen dira ebakuntzarako, baina gaixoak geletara doa-zenean, ez dago erizain gehiago".

Erizainen beste aldarrikape-na arriskua, abilezia eta oinaze-arengatiko gehigarria igotzea da.

"Orratzekin eta odolarekin ibil-tzen gara; teknikak zorrotzak dira; eta gaixoen zein sendagile-en aldetik, oinaze asko jasan behar dugu". Osasuneko langile-ei egindako erasoaren berri gero eta gehiago entzuten den honetan, hauxe dio: "Erizainok jasotzen dugu gaixoengandik zein senide-engandik eraso gehien. Ebakun-tza-gelan, ez dira gertatzen, gure-gana datozenak berehala loak hartzen dutelako, baina, geletan, gehiago dira kasuak".

Egindako ikastaroen, hizkun-tza jakintzaren zein antzinatasunaren araberako ordainsaria ere, Osakidetzan, Estatuko txikiena dela esan digu.

Julian Espadas

LABORATEGIKO LAGUNTAZALEA


"Langileok gero eta zaharragoak gara, eta taldea gaztetu beharko litzateke"

X izpietan jardun eta gero, labo-rategian dihardu, laguntzaile lan-gile finko modura.

65 urte baino lehen erretiroa hartzeko aukera eskatzen du Julian Espadasek: "57 urte dauzkat, eta lehenbailehen erretiroa hartzeko aukera banu, hobe; ez nik bakarrik, Osakidetzako edozein langilek. Hala ere, bereizketa dago langileon artean; batzuek 60 urterekin erretiratzeko aukera badute, eta beste batzuek, ez. Gainera, langileondako bakarrik ez, gaixoendako ere ona litzateke. Langileak gero eta zaharra-goak dira, eta lan taldea gazetze-ko beharra nabarmena da".

Bat etorri da gainontzeko lan-kideekin, lan kargak handituz doazela esaten: "Horri aurre egi-teko zenbat langile behar diren aztertu, eta langileok ipini egin beharko lirateke. Logelak dauden solairuetan, esaterako, lan han-dia dago".

Soldatetan ere, ezberdin-tsun handia dago, lanpostu batzuetatik beste batzuetara, Julian Espadases esanetan: "Ni neu kon-forme nago jasotzen dudanaren-kin, baina laborategiko lanak estresa eragiten du, batzuetan. Aldea handia da, esaterako, sendagileen eta zaindarien artean".



Erosten jakin:
ZURE FAMILIARENTZAT ONENA AUKERATU

 **EROSKI**
E ro s t e n j a k i n

KLIMA > UDAZKENA

Orain arteko egun hotzenak pasatuta, gaur epeldu egingo du

Domekan markatu zuen termometroak oraingo udazkeneko temperatura baxuena, izan ere, zero azpitik sei gradu egin zuen goizaldean

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Udazkeneko temperatura baxuenak izan genituen Debagoienean joan den aste bukaeran. Zehatzago esateko, domeka goizaldean izan zen minimo baxuena: zero azpitik sei gradu markatu zituen termometroak. Zapatu goizaldeko temperaturak ere ez ziren urrun ibili, zero azpitik bost graduko minimoa egon zen-eta. Hotzaldia egubakoitzean hasi

zen, eguenetik egubakoitzera arteko gauean zero azpitik bi gradu egon zen eta. Hala, izotza bota du aste bukaera osoan, gauero. Egun horietako maximoak zortzi gradu inguruan egon ziren.

Hotz bolada horrekin alderatuta, aste hasiera nahiko epela izan zen: temperatura maximoa 12 gradukoa izan zen, martitzen eta eguztenean, eta baxuena, lau gradukoa, martitzenean.



IZOTZA Debagoieneko txoko asko izotzak estalita agertu ziren aste bukaeran.

JOSETXO ARANZBAL

GIRO EURITSUA

Gaur, astelehena, hasita, epeldu egingo du nabarmen. Izan ere, hego haizea sartzen hasi zen atzo Debagoienean, eta gaur, bizi joko du; zakar ere, iluntze partean. Ostarteak eta hodeiak tartekatu egingo dira. Minimoek gora egingo dute, eta ez du izotzik egingo.

Datozen egunotarako ere antzeko eguraldia iragarri du Euskalmet Eusko Jaurlaritzako meteorologia zerbitzuak. Hala, martitzenean, euri gehiago egingo du, eta temperatura minimoek igotzen jarraituko dute. Eguen aldera, berri giroa pixka bat freskatzen hasiko da.

EKONOMIA > ENPRESA

Enpresendako doako finantza jardunaldiak izango dira

Elkargi Elkarrekiko Garantia Elkarteak antolatu ditu

Bihar, martitzena, izango da lau mintegitik lehenengoa

L.K. > BERGARA


Debagoin eta Debarreneko enpresei zuzendutako III. Finantza Jardunaldiak antolatu ditu Elkargi Bergarak.

Jardunaldi horiek lau mintegi praktikotan banatuta egongo dira, eta horietan, Enpresaren kudeaketarako giltzarri diren gaiak jorratuko dituzte, Elkargiko Ahokularitza Sailaren esperientzian oinarrituta.

Finantza jardunaldiak Elkargiko profesionalek gararatuko dituzte, eta Bergarako Miguel

Altuna Institutuko Areto Nagusian emango dira, azaroaren 20, 22, 27 eta 29an, 18:00etatik 19:30 arte. Eskualdeko enpresendako, doan da, baina komeni da izena lehenbailehen ematea, leku kopuru mugatua da-eta.

Nola ezarri diruzain-tza kudeatzeko sistema egoki bat, kostuak kudeatzeko sistema eraginkor bat nola garatu, zergatik eta nola baloratu enpresa bat eta nola planifikatu oinordetza-prozesua, eta familia protokoloa izango dira gai nagusiak.



SAHARAN Olaia Sagredo aretxabaletarra, Saharan.

IESBAA

GIZARTEA > ELKARTASUNA

Ibarreko bat, Saharako elkarte batekin lankidetzan

Aretxabaletar bat Tindufera joan da, giza-eskubide elkarrebatu laguntzera

13 marokoar agintarien aurka ipinitako genozidio kereila, eta elkarre hori abenduaren 11n eta 12an Garzonen aurrean testigantza emango duten lekuok ekin lanean dabil eginotan.

BASERRI-ESKOLARA

Bestalde, Iesbaak, Arrasateko Nubik eta Lasarteko elkarteak bi proiektu prestatzen dabilta datozen urterako. Bat gizalaguntza proiektu bat da, Mondragon Unibertsitateko ikasle batzuek Saharan lan egin dezan Aste Santuan. Bestetik, Oporrak Bakean programarako, ume sahararrak baserri-eskola batera ekarri nahi dituzte, berritasun moduan. Han, euskara, español eta hassaniyazko hezkuntza jasoko dute. Oraingoz, zehazteko dago non, zelan... izango den.



JASONE ZABALA

Euskalerriaren Adiskideak, pozik gurean

Euskalerriaren Adiskideendako, "herri preziatura" da Bergara, eta Bergarak Adiskideak ere maite dituela erakutsi zuen egunean, Elkarteak bere Nazioarteko Kongresua han egin zuenean. Mintegiak, bisita gidatua eta merienda izan zituzten. Argazkian, Juanjo Alvarez (UNED), Agurne Barruso (alkatea) eta Jose M. Urkia (Adiskideak).

OSASUNA > GRIPEA

Iaz baino gutxiagok hartu du gripearren aurkako txertoa

Kampaina bukatu aurreko astean, 65 urtetik gorakoen %64,24k zuten txertoa hartuta

Orain bi urte, %69k hartu zuten txertoa; Osasun arduradunen esanetan, beldur gutxiago dago

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA
Gripearren aurkako txerto kanpainia joan den egubakoitzean bukatu zen, eta dagoeneko kanpaina zelan joan den datu batzuk eman ditu Osakidetzak. Datu horiek kampaina bukatu aurreko aste bukaerakoak dira, eta emaitza definitiboak oso antzezoak izango dira, %1 edo %2 gehiago, asko jota, diote Osasun arduradunek.

Hala, Debagoienean, urtetik urtera txertoa jende gutxiagok hartzent duela ondorioztatzen da. Izan ere, aurten, 65 urtetik gorakoen artean, %64,24k zuten txertoa hartuta azaroaren 9rako; kampaina bukaerako datua %66 inguru ibiliko da, asko jota; iaz, %67ra iritsi zen, eta orain bi urte, %69ra. Zen. Gipuzkoa Mendebaldeko Osasun arduradun Arantxa

Urruzolak dioenez, "orain hiru urte, hegazti-gripearrekin eta, beldur handiagoa zegoen, eta jende asko joan zen txertoa hartzera. Gero, baina, epidemiariak egon ez denez, jendea beldurra galtzen joan da eta gutxiago joan da txertoa hartzera".

DATU ONENA, ARAMAIOKOA

Debagoineneko herriz herriko datuei dagokienez, Aramaioak zuen, joan den egubakoitzera arte, txertaketa portzentaje altuena: 65 urtetik gorakoen %80k hartu zuten txertoa. Bigarren datu onena Oñatik zuen: %76,64. Urruzolak dioenez, "Oñatik izaten du beti txertaketa-kopuru altuena; iaz, %80ra iritsi zen".

Gainerako herrietan, bi horiek alderatuta, kopuruak nabarmen egin du behera. Hala,



HARTZAILEAK 65 urtetik gorakoei gomendatu diete txertoa hartza. GOIENKARIA

Bergara, Antzuola eta Elgeta batera hartuta, Osasun sailak hala egiten baitu, 65 urtetik gorakoen %67,84k hartuta zuten txertoa joan den astera bitartean.

Aretxabaleta eta Eskoriatzak, biak batera hartuta, %68ko portzentajea zeukan. Azkenik, Arrasatek zuen datu baxuena, %64 inguru.

HEZKUNTZA

Nazioarteko mintegia hasiko da gaur MU

Komunitatea eta etxea ikasteko gune izateko programa bat landuko dute

L.K. > ESKORIATZA

Gaur, astelehena, eta bihar, martitzena, Lifeplace Learning izeneko nazioarteko mintegia egingo dute Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultatean. Lifelearn izeneko proiektuaz jardungo dute MUko Pili Sagasta, Monika Madinabeitia eta Tane Bikuñak eta Estonia, Alemania eta Erresuma Batuko ordezkarri banak eta Finlandiako bik.

LIFELEARN

Lifelearn proiektuan, Europa-ko sei unibertsitatek parte hartzen dute, tartean, MUk. Komunitatea eta etxe giroa ikasteko gune moduan aprobatxatzea da proiektuaren helburua, eta ikasleei laguntzea aisialdian, lanean eta komunitatean ikasteko aukerak errekonozitzen.



ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.
Etxetresnetan sekulako eskaintzak!
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.



HOZKAILUA COMBI 6 FAC-495
420 € 70.140 pta



HOZKAILUA 4FE-0E41
295 € 49.265 pta



GARBIGAILUA LA-110
305 € 50.935 pta



LABEA BITROZERAMIKA STA1410
335 € 55.945 pta



BEROTU SUKALDEA C-85 NC
1925 € 321.475 pta

Sukalde itzia, berotzen ez duena, igeltserotza lanik barik. Kutxa eta gaineko sukaldetako bikoitzarekin.

Altura: 85 cm.
Luzera: 85 cm.
Sakonera: 60 cm.



TELEBISTA PHILIPS LTD (TDT) INTEGRATUA LCD 26" PFL5522D
595 € 99.365 pta
LCD 32" PFL5522D
735 € 122.745 pta.

A+ 70%
A 45%
B 25%



TELEBISTA SANYO LTD (TDT) INTEGRATUA LCD 26" CE26LD81 - C
650 € 108.550 pta
LCD 32" CE32LD81 - C
685 € 114.395 pta.



"VERO" MAHAI
110x70 cm,
zabalgarria 160x70 cm-ra
450 € 75.150 pta



Fagor Eko-igorle elektrikoak

BERO URDINA, IZUGARRIZKO AURREZKIA

	ED	E
(610x1.060x95) mm	370 €	345 €
(610x910x95) mm	330 €	310 €
(610x760x95) mm	295 €	270 €
(610x610x95) mm	255 €	230 €
(610x460x95) mm	215 €	195 €

ED: Elektroniko digitala
E: Elektroniko, eskuzkoa

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperativistendako prelio bereziak.

Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik. Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

Gizartea gero eta zaharragoa denez, bihotzeko gaixotasunak eroruan eta maizago ikus- ten dira. Transplantea da bihotzko gaitza beste sendabide- ekin osatu ezin dutenen azken irtenbidea. Horretarako, emai- leak behar dira, ordea. Emaile- ak lortu eta bihotzko gaitzen berri eman asmoz, Atcore elkar- teak hitzaldia antolatu zuen egunean Arrasaten.

Garikoitz Lasa > Kardiologoa

"Estresak ez ditu bihotzko gaitzak sortzen, daudenak azalarazi baizik"

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE
Kardiologoa da Garikoitz Lasa, kardiologia interbentzionistan espezializatua. Bihotzko gaixotasunak zein diren, zein gaixo transplanta daitezkeen eta transplantatzeko sistemena eta jarraipen berrieman zuen hitzaldian.

Zein izan da, azken urteotan, bihotzko gaitzen bilakaera?

Bihotzko gaixotasunak gero eta arruntagoak dira kontsultetan, batik bat, urteen poderioz gaitzen delako bihotza, eta gizartea gero eta zaharragoa delako.

Zerk eragiten dituzte?

Bihotzko gaitzak, gehienean, kardiopatia iskemikoarenengatik ortzen dira. Hori gertatzen da bihotzko irrigazioan arazoaak daudenean; bihotzko hodiak arteriosklerosiengatik buxatzen direnean. Hodiak estutu egiten dira, eta bihotzera odola ondo iristen ez denez, bihotza, odolik gabe, hondatzen joaten da. Kasu askotan, adina da eragilea. Batzuetan, arinago sortzen da, edo larriagoa izaten da kolesterol edo tensio altua daukaten pertsonengan, erretzailetan edo diabetes dutenengan.

Estresa ere bada eragilea?

Bihotza gaizki dagoenean kexatzen hastea eragiten du estresak. Pertsona batzuek, gaixotuna izan arren, sintomariak ez dute, eta bizimodu arrunta egiten dute. Baino, bihotza gaixo badago, gaixoak estresa badu, errazago azaltzen dira arazoak. Estresak ez ditu bihotzko gaixotasunak sortzen, azalarazi baizik.

Kirolari gero eta gehiagok ditu bihotzko atakeak. Zergatik?

Ez da egia kirolariek arazo gehiago izaten dituztela. Kirolari batzuek, beste pertsona batzuek bezala, izan dezakete jaiotzatik bihotzko gaixotasunen bat. Kirolari asko dago munduan, eta noizean behin, baten bat gaixotu egiten da, batzuk, hiltzeraino; baina ez kirola txarra delako, baizik eta eurek jaiotzetik gaitza dutelako. Batzuetan, kirolak bihotza topera ipintzen du, eta bihotza gaixo badago, izan daiteke arazoak sortzeko lehen arrazoia.

Nola antzematen dira gaitzak?

Gaixoak azaltzen dituen sintomak dira garrantzitsuenak. Sintoma normalenak dira bularrrean presioa sumatzea, gehienean ariketa egiten denean, baina

ten dira. Transplantea da bihotzko gaitza beste sendabide- ekin osatu ezin dutenen azken

irtenbidea. Horretarako, emai- leak behar dira, ordea. Emaile- ak lortu eta bihotzko gaitzen

berri eman asmoz, Atcore elkar- teak hitzaldia antolatu zuen egunean Arrasaten.



Arrasateko kultura etxearen egin zuen Garikoitz Lasa kardiologoak bihotzko gaitzen eta transplanteen gaineko berbaldia.

IRATI AGIRREAZALDEGI

lasai egondakoan ere azal daiteke; eta disnea, arnasa ondo haritzeko zaitasuna. Mareo batzuk ere bihotzko gaitzen adierazle dira. Antzemateko, fonendoskopioaz egindako esplorazioak garrantzitsuak dira, eta, hortik aurrera, elektrokardiograma, ekografia eta kateterismoa.

Nola egiten diezue aurre?

Gaixotasuna oso aurreratuta ez dagoenean, lehenengo, prezentzia egin behar da, gaitza okeerrera joan ez dadin. Bestalde, gauza asko kontrola daitezke sendagaietik: tentsioa, kolesterolemia... Baino gaixotasunak aurrera egin duenean, kateterismoa egin behar da, hodiak konpontzeko, edo kirurgiaren bidez ere konpon litezke. Bide horiek funtzionatzen ez dutenean, transplantea da hurrengo pausoia.

Euskal Herria organo emate- etan aurreratua da. Zergatik?

Spainian dago munduko emaile tasarki altuena, eta Eus-

ADINA
"Urteak joan ahala gaixotzen da bihotza, eta gizartea gero eta zaharragoa da"

KIROLA
"Kirolak bihotza topera ipintzen du, eta, gaixo badago, izan daiteke arazoak sortzeko lehen arrazoia"

TRANSPLANTEAK
"Gazte hil diren pertsonetatik datoz organoak, eta ez dago nahikoa guk nahi adina transplante egiteko"

kal Herriko tasa ere altuenetarikoa da. Arrazoia izan daiteke organoak emateko kultura hedatua dagoela gizartean. Emaileak gazteak dira, osasuntsuak, istripuz edo bestelako gaixotasunen bategatik hil direnak. Baino arazo da organo gutxi ateratzen direla gaixo askorendako. Hortaz, tratamendua mugak ditu, ezin zaielako denei eskaini; gaixo gazteei, 65 urtetik beherakoie, eskaintzen zaizkie organoak.

Bihotz transplanteaz jardun duzu. Zertan datza?

Beste irtenbiderik ez dagoen bihotza sendatzeko eta bihotz horrek gehiago ezin dueñeira iraun, pertsona hori hil egingo litzateke; hortaz, aukera bakarra transplantea da, bihotz berria jartzear. Baino arazo da ez daukagula beste alternatibarik, eta organo berriak behar ditugula; gazte hil diren pertsonetatik datoz organo horiek, eta ez dago nahikoa kopuru guk nahi adina transplante egiteko.

Arlo horretan, azkenaldian, zein aurrerakuntza izan dira?

Aurrerakuntzarik nabarmenena hasieran egin zen: defentsak kontrolatzea. Gorputzak, normalean, errefusatu egiten du guk kanpotik sartzen dugun organoa; hortaz, transplantatzen dugun pertsonak errefus horri aurre egiteko sendagai bereziak jaso behar ditu. Hortik aurrera, transplantea bera ez da askorik aurreratu. Kirurgia, teknikoki, gaindituta dago, eta errefusa bera ere. Orain, zelulekin, edo animalien organoak pertsonendako aprobatxeta daitezkeen ikusteko, probak egiten dihardute.

Etorkizunera begira, zer aurreikusten duzue, bihotzko transplanteei dagokienez?

Animamalien organoak aprobatxatzea edo zelula edo enbrioi bidez organo berriak sortzea litzateke etorkizuneko asmoa, baina nik neuk oraindik oso urrun ikusten dut asmo hori errealtitate izatetik.

oharrak eta deialdiak

BERGARA

> Kilometroetako boluntarioen afaria eta DVDA

Abenduaren 1ean afaria egin nahi dute Kilometroak 07 jaian boluntario jardun zutenekin, udal pilotaleku. Txartelak honezkero salgai daude, 25 eurotan, Aranzadiko idazkaritzan, eta Pol-Pol, Ariznoa, Deportivo, Dixula eta Jam tabernetan. Eskuragarri egongo dira hilaren 25era arte. Bestetik, Kilometroen gaineko DVDA ere atera dute. Eskuratzeko eskariak egin behar dira Aranzadiko idazkaritzan, abenduaren 1a baino lehen (943 76 90 71). Abenduaren 17tik 21era bitartean banatuko dituzte, eta ordaindu ere, orduan egin beharko dira. Prezia 12 euro da.

ARRASATE

> Zabalik dago tenis eta igeriketa eskoletan ize-na emateko epea

Mojategiko tenis pista berriaren izango dira tenis eskolak, 15 urtetik gorakoendako. Astelehen eta eguztenetan, 16:15ean, izango dira eskolak; martitzen eta eguznetan, berriz, 17:30ean, 18:30ean eta 19:30ean. Prezia 44 euro da, baziideendako, eta 54, gainerakoendako. Igeriketari dagokionez, bakarkako eskolak izango dira, onuradunak aukeratzen duen ordutegian, betiere, 07:15etik 17:30era bitartean. Hile-

ko prezioa da 31,95 euro baziideendako, eta 41,95, gainerakoendako.

ARETXABAleta

> Tai-chi eskolak hasiko dira gaur

Gaur, astelehena, hasiko dira kirol etxeen egingo dituzten tai-chi saioak. Goizez, astelehena eta eguztenetan, izango dira eskolak, 08:15-09:15, eta arratsaldez, eguztenetan, 20:30-21:30. Prezia da 31 euro hilean baziideendako, eta 37,20, gainontzeendako. Informazio gehiagorako edo izena emateko, deitu 943 71 26 28 zenbakira.

ARRASATE

> Txikilandian parte hartzeko dei egiten die Txatxilipurdik begiraleei

Txikilandia lanea joateko dei egiten die Txatxilipurdik begiralei. Urtarilaren 2tik 5era bitartean izango da. Interesatuek izena eman dezakete aste-

henean hasi eta abenduaren 10era bitartean, Txatxilipurdin. Curriculuma eta argazkia eraman behar dira. Ohiko begiraleek, berriz, izena ematearekin nahikoa dute.

ELGETA

> Lennart Green magoa ikusteko sarrerak

Abenduaren 15ean, Lennart Green Suediako mago handiak ikus-kizuna egingo du Espaniola antzokian. Besteak beste, munduko txapel-duna da kartomagian. Sarrerak dagoeneko salgai daude 15 euroren truke -12, baziideendako.

BERGARA

> Jardun elkartea koor dinatzalea behar du

Berriketan proiekturako eta haurren euskara erreforzuetarako koordinatzalea behar du. 8 orduko jarduna da. Beharrezkoak dira euskara menderatzea eta harremanetarako erraz-

tasuna izatea. Interesatuek bidali curriculuma Jardun elkartera (Errotalde jauregia, z/g, 20570 Bergara), hilaren 23a baino lehen. Argibide gehiago: 943 76 36 61.

ARRASATE

> Zarzuelarako sarrerak salgai jarri dituzte

Izaskun Murgia elkarteko lirikoak azaroaren 24an, 25ean eta 30ean eta abenduaren 1ean *El duo de la africana zarzuela* antzettuko du Amaia antzokian. Hala, baziideek dagoeneko eskuragarri dituzte sarrerak 12 euroren truke Arrasate Musikalen. Gainerakoek azaroaren 19tik aurrera erosia ahal izango dituzte, 15 euroren truke, Amaia antzokian, 17:00-20:00 ordutegian. Gainerako eguneitan eta abenduaren 1era arte, 18:00-20:00 ordutegian egongo dira eskuragarri.

BERGARA

> 1981eko kinto ospakizuna egingo dute

Azaroaren 24an egingo dute. Izenematea da azaroaren 21a baino lehen, Euskadiko Kutxan.

BERGARA

> 1957an jaiotakoek afaria egingo dute

Azaroaren 24an egingo dute, Tartufo jatetxeen. Hitzordua Fraiskozurin egin dute, 20:30ean. Izenematea da Intxortan, 10 euro aurreratuta.

943 25 05 01

goienkaria@goiena.com

etxeko leihotik



Inazio Arregi > Goienako zuzendari nagusia

Lehen putre zirenak, gaur, arrano bihurtuta

Duela hamabost egun irakurri genuen aldizkari hone-tan Urbia artzainak haserre zeudela. Putreek lau ardi akabatu zizkioten bati eta beste lau zauritu. Ez du arrazoi faltarik gizonak.

Lehenago ere entzunda gaude horrelakoak gertatu izan direla, eta bide honetatik jarraituz gero kontu handiz ibili beharko dute ganaduzale eta artzainek kumeekin. "Artifizialki" elikatuta, Hego Euskal herrian kolonia bat Arbaiuen, eta indibiduo gutxi batzuk Irurtzungo bi haizpeetan izatetik, noranahi hedatu da putrea. Gaur egun ez da arra-o bere hegada ederra gure zeruetan ikustea.

Arazoa gainpopulaziorekin etorri da. Honek gosea ekarri du, eta lehen sarraskijalea zena harrapari bihurtzen ari da. Hau da, gure eraginez, lehen putrea zena arrano ari da bihurtzen.

Espezie babestuak arriskuan daudenak ei dira. Gaur egun ez dago arrazoikir putrea espezie babestuen katalogoa edukitzeko. Bai beharbada Europan, ez gurean. Marmota Piriniotako hainbat tokitan bezala, putrea izurrite ari da bihurtzen. Egoera berrira egikitako politikak landu beharko ditu administrazioak.

> Gogoan daukagu

Espaniako teniente koronel baten "se sienten, coño" hura. Orain bere jefeak "por que no te callas" asmatu du kanpo-ibilaldiatarako. Demokrazia ulertzeko modu bitxia militarrena.

> Txinoak ba ei datozi.

Realaren baziide zerrenda izan daiteke Euskal Herriko txinatarreren zentsua egiteko euskarria. Polita izango da Anoeta txinatarrez betea ikustea. Beste estetika bat izango du.

debagoiendarrak kanpoan

Mari Jose Ezenarro > Bergara

"Elgoibarrera joateko, negar egin nuen; oraindik barruan dut Bergara"

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Bizkaitarra, Etxeberriko da Mari Jose Ezenarro jaiotzez, Umetan etorri zen Bergarara, eta 17 urterako egon zen. Elgoibarren bizi da egun, baina, Bergarako urteez gogoratuta, hunkitu egiten da oraindik.

Nolatan etorri zinen Bergarara?

Bost urte nituela, eskolara hastekoan nintzen, eta eskola base-rritik urrun samar geratzen zenez, Etxeberriko sarritan etortzen zen Bergarako izeba batek berarekin ekarri ninduen Bergarara. 14 urte-ko arte, Enseñanzan ikasi nuen, eta gero, 17 urterako egun, Enaneko lurrindegian jardun nuen lanean.

Gero Elgoibarrera aldatu zinen.

Bai; ahizpa jostun moduan hasi zen, eta, laguntzarren, Elgoibarrera etorri nintzen. Bergara-

tik alde egin nuenean, negar mordoa egin nuen. Hala, hasieran, ia domekero etortzen nintzen Bergarara lagunengana.

Elgoibarren bizi zara egun ere.

Bai; ahizparekin hasi nintzen lanean, eta gero, orain senarra dudana ezagutu nuen, eta egun, hemen bizi naiz. Goxoki denda bat zabaldu nuen orain dela 25 urte, eta bertan jarraitzen dut.

Hala ere, Bergara ez daukazu saltzeko, ezta?

Oso oroitzapen onak ditut. Bergaran oso ondo hartu ninduten, eta lagun onak ditut oraindik.

Sarri etortzen zara Bergarara?

Nahi baino gutxiago. Noizeten behin, egiten diet lagunei bisita. Lehen, jaietan ere joaten nin-



Elgoibarrera lanera

Bergaran urte asko eman zituen Mari Josek; gero, ahizparen jostundegira joan zen lanera, Elgoibarrera.

tzen, urtean behin baziaria egiten genuen... baina, lanarengatik, ezin naiz sarritan joan. Hala ere, harremana gordetzen dut lagunekin; telefonoz, eurak ere inoiz etortzen dira bisitan... Erretiroa hartzen dudanean, maizago joango naizen ustea dut.

Bergarako ezer eramango zenuke Elgoibarrera?

Gauza bat, oso berezia: bergararek eskaini zidaten maitasuna. Bertan urte batzuk baino ez nituen pasa, baina lagunarte oso polita osatu genuen. Bestalde, gogoan dut Espoloi ingurua. Oso toki polita zen: kioskoa, kantina, etxerik ez zegoen apena... Etxetik gertu zegoen, gainera; Etxenagusia gainean bizi ginan, eta lan Bidekurutzetan egiten nuen, dena gertuan zegoen eta jolas

mordoa egin genuen han. San Martzaletako giroa ere gogoan daukat. Berriz hartuko nuke gus-tura erromeria giro hura.

Inoiz pentsatu duzu itzultzea?

Garai batean, bai; Elgoibarrera etorri nintzen, ez neu-kan lagunik, eta gogorra egin zitzaidan ohitza. Orain, ordea, Bergaran senide batzuk izan arren, Elgoibarren daukat bizi-modua antolatuta, seme-alabak ere baditut hemen, hortaz, orain ez nintzateke bizi izatera buelta-tuko, baina, etorkizunearan, sarria-go bisitatzea nahiko nuke.

Bergararrei zer esango zenieke?

Aspaldit joan nintzen arren, ez ditudala ahaztu; hain ondo har-tu ninduen herri bat izanik, beti izango dudala gogoan.

kale inuesta

Mingain urdinaren gaitzak haragia jateari uzteko moduko ardura sortu ditzu?



Cristian Darwich
Langilea
Bergara



Maria Jesus Arando
Erretiratua
Bergara



Jokin Biain
Langilea
Bergara



Maria Puent
Etxekoandrea
Bergara

Ez, kontu horren gainean ez dut, oraingoz, ezer entzun. Horren berri jakinda ere, hasieran ikaratu nintzateke, beharbada, baina, geroa, ezingo nintzateke haragirik jan gabe bizi, ez naiz-eta barazkijalea.

Ez, oraingoz ez, jaten segitzen dut; nolabaiteko erreparorik banu, ez nuke jango. Ez dakigu inguruan gaitzaren arrastorik dagoen, baina haragia nondik ekartzen duten ere ez dugu jakiten, askotan.

Ez; berdin-berdin jarraitzen dut haragia jaten, batez ere, erosketak nik neuk ez ditudalako egiten eta, gainera, lantokian ipintzen digutena jaten dugulako. Hala ere, ez daukat mesfidantza handirik.

Ez, orain artean bezala haragia jaten segitzen dugu etxean. Esan duteenez, oraingoz ez dago inolako arriskurik; hortaz, ez gara kezkatzen. Bildotsarekin egon daiteke zalantz, baina, azkenaldian, ez dugu jan.

irakurlearen txokoa

943 25 05 02

goienkaria@goiena.com

ARRASATE

> Obretarako erabiltzen duten bideak nahastu egiten du

Arrasateko gidari batent iritziz, Epeleko obretarako errepeide erdian zabaldutzen zerbitzu-bidea ez da batere egokia: "Obretako ibilgailuak gelditzeko bidea zabaldutute, baina ezin zuten leku okerrago baten ipini; izan ere, berez, modu nahasgarrian seinaleztatuta dagoen lekua da, eta inor nahastu egin daiteke eta bide horretatik sartu".

OÑATI

> Kirolegiko kantxako balkoa, umeendako txarra

Oñatiar batek dioskunez, "kirolegia, oro har, ondo geratu da berritze lanak eta gero, baina gauza batekin ez nago batere konforme: kantxako balkoiko baranda heldu baten gerri ingururaino iristen bazaio, umeek, edo gurpildun jesarlekuan dagoen batek, ezin dute partidua ikusi. Ez dut uste hori aldatzea asko kostatuko litzatekeenik, eta onerako izango litzateke".

ARRASATE

> Autoendako garbigunera gaizki sartzen dira autoak

Arrasatear batek ohartarazten du Garagartzako auto-garbigunera "jende gehiena" gaizki sartzen dela, eta horrek "arriskua" sortzen duela: "Berez, sartzeko, Fagorreraino joan, buelta eman eta eskumatik sartu behar da; baina jendeak haraino ailegatu eta ezkerrera egiten du. Hori debekatuta dago, eta istripu larriak egon dira horregatik. Hainbeste kostatzen da arauak betetzea?"

usteak uste

Jon Berezibar

Lotsarik ez, baina egiten jakin ez

Leintz aldeko euskara ikastaroari ekin genion legubakoitzean hamar bat gaztek, AEDk antolatuta. Edozein ikastaroren lehen saioetan arau izaten den legez, irakasleak haren esperientzia kontatu zigun. Azaldu zuenez, magisteritza eskoletan hasi bezain laster, irakasleek esan zieten ahaz zezatela etxeko euskara, ez ziela ezertarako ere balioko eta, gainera, traketsa zela. Egia da Leinzko hiztun askok izan duela lotsa bere euskara traketsa dela pentsatu edo esan diotela; konplexua egon da. Nire ustea da, baina, oraingo belaunaldien kasua ez dela hori. Ondo harro gaude gure euskaraz, baina lotsa ematen diguna da gure euskalkian trakets eta koxo dihardugula. Egoera, beraz, irauli egin da; lanari heldu behar orain.

zorroztalea



Markos Balentziaga

Irakurketak

"Inkomunikazioa bukatzeko eskatzea mozioa onartu zuten atzo Eusko Legebiltzarreko osoko bilkuraren. PPko legebiltzarkide Carmelo Barriok irakurketarako hartzuen eztabaidako denbora. Arreta handia jarri zion Espaniako gobernuburu ohi Jose Maria Aznarren azken liburuari".

Berria > 2007-11-17



Joan dan zapatuko *Berria*-n dator argazkia; Carmelo Barrio PPko diputatu ikusi leike bertan Raul Bogajok egindako erretatuan. Gasteizko Parlamentuko mahaikidia da Barrio jauna; bere ahulkixan jarritta dago eta Aznarren *Cartas a un joven español* dihardu irakurten.

Zemendi-sasoi honetan azterketak egiten dabitz institutuetan eta estudiantiak azternauta bihurtzen dira liburu eta apunte artian; ez dira beste ezetarako egoten. Modu horretan txagotzen da Carmelo Barrio be konzentrauta, erne-erne, ille-flekillaun edota kokote osteko kizkurrekin denborarik alperrik galdu barik, Aznarren leziñuak ikasten.

Erretretuari erreparran eta John Ruskin idazliaren esana etorten jat gogora; "bi liburu mota dare", diño Ruskin: "alditxo baterako diranak eta edozein alditarako balixo dabentak". PPko mutillaren atenziñua ikusita pentsau leike diputatu burusoilla bera dala Aznarren ikaslerik zolixena, baña horretatik ez dago begitantzerik Aznarren berbak edozein alditarako balixkuak dirala.

Eta Barriok Aznarren enborreko ezpal bihurtuta ziharduan aldi horretan, zer pasatzen zan Parlamentuan? Kafia hartzera joanda ete ziran Barrio ez, gañerako beste diputatu danak? Edota beste diputatu guztiak be Aznarren irakurten ete ziharduen, erretatuan agertzen ez diran arren?

Beste diputauak moziñ bat zebilten eskuartian, gero, PPku eta PSOEku kontrako botuekin, onartu zebena. Moziñ horren arabera Legebiltzarren polizia-komisaria danetan kamarak jartzia eskatzen dau, horretara, atxilotuen seguridadiak irabazi egingo dabelakuan.

Erretretuak argitzen ez dabena botuaren kontua da: Barriok botua emotiaz be paso egin eta Aznarren konpafian jarraitu zeban?

**"Erretretuan,
Carmelo Barriok
Aznarren liburua
dihardu irakurten"**

**"Aldi horretan,
beste diputauak
moziñ bat zebilten
eskuartian"**

Goienkaria

Argiratzalea Goien Komunikazio Zerbitzu Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendaria Nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Leire Kortabarria Erredakzioa Mireia Bikuña, Arantza Ezkibel, Irati Agirre Aldegi, Maier Uranga Oinarritzko diseinua Goi Arana Diseinu arduraduna Alex Azkarate Maketazioa Imanol Soriano Publizitate arduraduna Mireia Larrañaga Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazio arduraduna Agurtzane Gaiztaran

EGOITZA NAGUSIA
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 02 • Fax: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otañor Lizenziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Fax: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABAleta 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Fax: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: publizeta@goiena.com

Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-0084/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale



Gipuzkoako Foru Aldundiak
diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako
Foru Aldundia

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria**

Herriak

Arrasate > 10 Bergara > 11 Oñati > 12 Aretxabaleta > 13 Eskoriatza > 13
Antzuola > 14 Aramaio > 14 Elgeta > 14 Leintz Gatzaga > 14



> BERGARA

Mendekotasuna duten nagusiak zaintzen dituztenendako ikastaroak antolatu dituzte > 11



> ESKORIATZA

Dendak ehun urte bete dituela eta, omenaldi hunkigarrria jaso zuten Viteri dendakoek > 13



> ANTZUOLA

Pausoka guraso elkartea zuzendaritza berria du, eta haurtzaindegiaz eta zaintzaz jardun zuen > 14

ARRASATE > ERAKUSKETA

Sexualitatean oinarritutako argazki bilduma ipini dute Kulturaten

'AZALA AZALAREN KONTRA' Izenburu hori ipini diote Sexologia Zerbitzuaren erakusketari

DOKUMENTALA Martitzenero, arratsaldeko seiak eta erdietan dokumentala botako dute

UBANE MADERA > ARRASATE

Azaroaren 30era arte, sexologia ardatz duen argazki bilduma ikusgai izango da Kulturateko hirugarren solairuan, Jokin Zaitegi gelan. Oro har, Gaztesareko -gazteei zuzendutako webguneko-Sextabaidaren erakusketa da.


Hala azaldu du Larraitz Arandok, erakusketa antolatu duen Arrasateko Udal Sexologia Zerbitzuko arduradunak. Hark azaldutakoaren arabera, 2006an Gaztesareak argitaratutako *Izarapeko aholkuak* izeneko sexu-gidan oinarritura dago argazki erakusketa.

SEXUALITATEAREKIKO KEZKAK

"Gaztesareak badu atal bat *Gozategi* deitzen dena, eta hor, Euskal Herriko gazteek kezkak-eta azaltzen dituzte: *Izarapeko aholkuak*", dio Arandok. Kontatu du kezka eta kuriositate asko zeudela atal horretan eta, kezka guztia batzeko, liburua egin zute-la, "eta liburu horretarako behar ziren argazki errealkak, batez ere, Euskal Herriko gazteen argaz-

kiak. Iza ere, beti sexualitatearekin lotuta dauden liburuetan egoten diren argazkiak ereduari oso lotuta egoten dira: gorputz perfektuak eta halakoak. Hala, liburu horren helburua zen Euskal Herriko gazteriaren errealtitatea adieraztea eta gorputz desberdinak erakustea. Boluntario dezente aurkeztu zen libururako biluzik posatzeko, eta Gasteizko argazkilari batzuek argazki politak eta dezente atera zituzten. Eta, hain justu, hori da erakusketa-tik deigarriena, Euskal Herriko gorputz desberdinak ikusten direla, modelo-enak ez direnak; benetakoak".

Hortaz, argazki horiek erabilita antolatu dute Kulturaten ipini duten erakusketa; "eta era-kusketa horrek laguntzen du, gero, Sextabaida mamitzen edo kaleratzen. Beraz, horixe ikusiko dugu Kulturaten: pertsona eta praktika desberdinaren gaineko argazkiak. Eta horrekin batera, zintzilikatuko ditugu Sextabaidan dauden galderak", gainera du Larraitz Arandok.



GORPUTZAK ETA PRAKTIKAK Gorputz eta praktika errealkak erakusten dituzte Kulturateko argazkiek.

JOSETXO ARANZABAL

Larraitz Arando > Udal Sexologia Zerbitzuko arduraduna

"Sexualitateari buruz dagoen eztabaidan oinarritutakoa da"

U.M. > ARRASATE

Kulturaren ipini duten erakusketa-ren jatorria gazteendako Gaztesrea izeneko webgunean dago, Sextabaida izeneko atalean.

Hasteko, zer da Sextabaida?

Sexualitateari buruz ematen den eztabaida publikoa, bai Internet bidez eta baita erakusketa ipintzen den lekuetan edo hainbat gaztetxe edo kul-

tura etxetan zabaldu den eztabaida. Planteazen dute gai jakin bat -adibidez, plazaren mugapena- eta gai horren barraun galderak egiten dira -adibidez: Gorputzeko zein atalekin senitzten duzu plazer handien? - eta, foro horretan, jendeak bere iritzia ematen du. Edozeinek parte har dezake. Iza ere, zenbat eta jende gehiagok parte hartu, hortik atera daitezkeen ondorioak interesgarriagoak izangodira. Hori

da Sextabaida, eta horrekin lotutako erakusketa ekarri dugu Arrasatera. Hala, Sextabaidan azaltzen diren galderetako batzukere zintzilikatuko ditugu. Horrez gain, aukera dago eskuorri txiki bat hartzeko. Hortxe daude-Sextabaidan parte hartzeko azalpenak.

Zein da helburua?

Euskal Herriko gazteriaren artean sexualitatearen gaia zabaldu, sakondu eta gaur egun sexualitate-arko daukagun eredu itxi edo zorroztza kolakan jarri edo hausnartu.

Sextabaidako materialarekin dagoeneko argitaratu duzue sexualitatearen gaineko liburu bat: *Izarapeko*



GOIENKARIA

aholkuak. Hor azaltzen den adibideen bat ipin zenezake?

Adibidez, neska batek idatzi zuen esanez eskuekin igurtziz ezin zela iritsi orgasmora. Zioen ez zekiela zehazki zela igurtzi behar zuen, eta lagun-tzaeskatzuen. Halakoakagertzen dira. Liburuan, gaien arabera antolatuta daude. Adibidez, orgasmoarekin lotutakoak kapitulu batean daude.

Liburu eta erakusketa horrez gain, Sextabaidako mamia beste moduren batean kaleratuko duzue?

Bai. Emango diogu jarraipena. Dagoeneko denbora nahiko luzea daramate gai horren inguruan hainbat lan egiten.

KULTURA > ANTZERKIA

Doke taldea atzera ere igoko da taula gainera, abenduan

Pedro Inazio de Barrutiaren 'Actto para la Noche Buena' obra eramango dute Euskal Herriko hainbat txokotara; ETBk ere grabatuko du lan hori

UBANE MADERA > ARRASATE
Arrasateko Doke Anterki Taldea eszenatokietara bueltatuko da abenduan, *Actto para la Noche Buena* obrarekin. Nafarroa, Bizkaia, Araba eta Gipuzkoara eramango dute Barrutia aramaioarraren antzezlanra.

Hasi, ibilbidea Iruñean hasiko dute, abenduaren 13an. Donostiarri egingo dute gero, Santo Tomas inguruan pare bat saio egiteko Antzoki Zaharrean.

Bizkaiari tokatuko zaio gero, izan ere, abenduaren 23an hitzordua dute Markinan. "Iaz, nahi zuten markinarrek Barrutiren obra bertan aurkeztea, baina taldearen egutegia beteta zegoenez gero, ezina gertatu zen. Aurten dute, beraz, aukera", Dokeko taldeideen esanetan.

Bukatzeko, abenduaren 29an, Aramaion antzeztuko dute lana, "eta taldeideek zentzu berezia eskaini nahi diote ekitaldiari, Barruiarenak bere egin baitu taldearen azken hiru urteotako aktibitatea".

ETB-K GRABATU EGINGO DU

Bestalde, Aramaion, baita ere, baina abenduaren 17an, beste saio bat egingo dute. Bainaz berezia izango da hori, Euskal Telebistak grabazioa ekoitzi egingo du-eta, gero bere kateetatik grabatzeko.



ARAMAION Doke Antzerki Taldea, iaz Aramaion egindako antzezpenean; oso arrakastatsua izan zen saioa.

ARTXIBOA

Doke Antzerki Taldeko partaideak irailetik dabilta entseguak egiten, eta abenduko emanaldietarako, berrikuntza batzuk sartu dituztela iragari dute, iazko eszenografiarekin alderatuta, hain zuzen ere.

Bestalde, iragarri dute dagoeneko salgai daudela Iruñeko eta Donostiako emanaldietarako sarrerak. Eta baita ere Iruñea, Donostia eta Markinara joateko autobusa ipiniko dutela Arrasatetik. Izena eman behar da Zabala lurrindegiaren.

Emanaldien egitaraua

abenduak 13, eguna

20:30: Iruñean, Nafarroako Antzerki Eskolan.

abenduak 17, Astelena

19:00: Aramaion, kultura etxearen (ETBeko grabazioa).

abenduak 20, eguna

20:00: Donostian, Antzoki Zaharrean; euskaldunendako eskaintza.

abenduak 23, domeka

20:00: Markinako frontoian.

abenduak 29, zapata

20:30: Aramaioko kultur etxearen.

OHARRA: Iruñera, Donostiara eta Markinara joateko autobusa jarriko dute Arrasatetik 15:30ean.

NEKAZARITZA > SAGARDO IKASTAROA

Sagardo ikastaro arrakastatsua egin zen zapatu goizean Lexarra baserrian

Hogeikasle inguru joan ziren 09:00etan hasi zen sagardo ikastarora, etxerako norberak sagardoa egiteko helburuarekin, denok ere

MAIER URANGA > ARRASATE

Zaldibar auzoko Lexarra baserrian egin zuten, zapatu goizean, Joseba Garitaonandiak antolatu duen lehenengo sagardo ikastaroa. Bere gurasoak hasi ziren orain urte batzuk sagardoa egiten, eta, gaur egun, bera ere horren oso zalea da. Baserrirrentzat antolatu du, gehienbat, eta gaiarekin interesa duen inguruko jendea ezagutzea eta kontaktuan jarraitzea.

Hasieran, goizerako egin zuten arren hitzordua, ikastaroren alde praktikoa arratsaldean egin zuten, azkenean.



IKASTAROA Iñaki Larrañaga Diputazioko teknikaria, ikastaroa ematen.

tzan aditua. Sagarren gaitzen inguruan, txertoak, dauden sagarrak edo sagarraren muztioaren inguruko ezaugarrien inguruan berba egin zuen.

SAGARDOA EGITEN

Arratsalderako utzi behar izan zuten ikastaroaren alde praktikoa, goizean ez zitzaien askorako denborarik geratu-eta, nahiz eta, 09:00etarako, guztiak aulkian jesarrita, ikastaroa noiz hasiko zain egin.

Baserrirako dolarean egin zuten sagardoa zapatuan. Lehenengo, sagarra errrotatik pasa, txikitu, dolarerea bota, estutu eta muztioa atera zizkioten pilatutako sagarrei. Xabier Kamio enologoaren laguntzaz, sagarrari ateratak muztioaren ezaugarriak ezagutuz joan ziren berta-hurbildutako gazte eta nagusiagoek: azukre kopuru nahikoa ote duen edo PHa nola neurtu, esate baterako.

Joseba gustura geratu zen jendearen interesaz, eta ikasleak, gehiago, ikasitakoaz.

SAGARDOAREN PROFESIONALAK
Iñaki Larrañaga Diputazioko teknikariak hasi zuen ikastaroa. Iñaki azken 25 urteotan Gipuzko-

ako sagarrak barietatean lanean ibili da, nondik norakoak aztertzen; horrela bada, Gipuzkoan zein sagarrak dauden edo zein barie-

tate dauden txertatuak azaldu zuen Larrañagak. Xabier Kamio enologoa ere bertan izan zen, sagardogintza eta txakolinguin-



MENDEKOTASUNA Ikastaroak mendekotasuna duten pertsonak zaintzen dituztenei zuzenduta daude.

GOIENKARIA

GIZARTE ZERBITZUAK > NAGUSIAK

Adineko pertsonak zaintzeko ikastaroak

Ikastaroak Bergaran egingo dira, abenduan, hilaren 10ean, 12an, 14an, 17an eta 19an hain zuzen

EDU MENDIBIL > BERGARA

Zure nagusiak maite dituzunet, hobeto zaintzen ikasi lelopean, Diputazioko Gizarte Politikako departamentuak mendekotasuna duten adineko pertsonak zaintzen dituzten senideei zuzendutako ikastaroak antolatu ditu. Ikastaroak Bergarako erretiratuen egoitzan egingo dira, aben-

duan, hilaren 10ean, 12an, 14an, 17an eta 19an, hain zuzen ere. Arratsaldez, 15:00etatik 19:00etara, izango dira saioak. Ikastaro horien helburua hau da: adineko mendeko pertsonak zaintzen dituztenei laguntza eta prestakuntza eskaintza.

Prestakuntza horretan, mediakuntza, psikologia, lege eta gizar-

te arloetako gaiak eta laguntza teknikoei buruzkoak landuko dituzte. Hainbat adituk egingo dituzte hitzaldiak. Izenematea Udaleko Gizarte Zerbitzuan egin daiteke, 943 77 91 65 zenbakian.


MIZPIRUALDEKO ASTEA

Bestalde, Mizpirualde Egoitzan hainbat ekitaldi izango dira asteroen. Gaurtik egubakoitzera bitartean, arratsaldero, musika, dansaldiak, txapelketak eta diapositiba emanaldiak izango dituzte.



San Martin Eskolako elkarretaratzea

San Martin Eskolako irakasleek eta gurasoek elkarretaratzea egin zuten egubakoitz arratsaldean, San Martin plazan. Azken asteotan, egubakoitzero egiten dute kontzentrazioa udaletxe aurrean, ikastetxeen duten espazio arazoari behin betiko soluzioa eskatuz. Alde guztiek batuko dituen mahai lanean hasteko ordua dela adierazi dute behin baino gehiagotan San Martin Eskolako arduradunek. Egubakoitzean, *Hitzarmena sinatuta, denontzako etorkizuna* zioen pankarta erakutsiz batu ziren.



JOSETXO ARANZABAL GOIENKARIA

EUSKARA > LEHIAKETA

Amodiozko Gutunen Lehiaketa deitu du Jardunek

Lanak jasotzeo epea urtarriaren 6ra arte zabalki; SMS bidezko mezuen lehiaketa deitu dute aurten ere

E.M. > BERGARA

Jardun euskara elkartea Amadiozko Gutunen Lehiaketa deitu du. Lehiaketa beteranoa dugu, dagoeneko, amadiozko gutunea: 16. ekitaldia da aurtengoa.

Ohikoa den bezala, lan guztia jatorrizkoak, argitaragabekak eta euskaraz idatziak izan beharko dute. Lehiaketan 1993an edo lehenago jaiotako edozein pertsonak parte har dezake. Lanek gutun forma izan beharko dute, eta DIN A-4 orrian, eskuz zein ordenagailuz idatzita, aurkeztu ahal izango

dira. Luzera ezin izango da bi orrialde baino gehiagokoa izan.

SARI BIKAIAK

Lanak bidaltzeo epea datorren urtarriaren 6ra arte izango da zabalki. Irabazoleak 500 euro jasoko ditu, eta bigarrenak, 250 euro. Bergarar onerrendako, 150 euro izango dira. Azkenik, 26 urtetik beherakoen artean erabakiko da Irakurle Gazteen saria: 100 euro jasoko ditu irabazoleak.

Beti bezala, sari banaketa ekitaldia San Valentín egunean, otsailaren 14an, egingo dute, Bergarako kultura etxean, 19:00etan.

SMS bidezko mezuen lehiaketa ere deitu dute. Argibidetarako, Jardun elkartera (Errotalde jauregira), 943 76 36 61 telefona edo www.jardun.net webgunera jo dezakezue.



SAN VALENTIN Sari banaketa otsailaren 14an egingo dute.

ARTXIBOA

> KILOMETROAK

Kilometroetan lanean jardundakoek afaria egingo dute abenduaren 1ean Udal Pilotalekuaren

Kilometroetan lanean jardun duten boluntarioekin, herri afaria egingo dute antolatzaleek abenduaren 1ean, Udal Pilotalekuaren. Afarirako txartelak salgai daude, 25 eurotan, azaroaren 25era bitartean, Aranzadi ikastolan eta Deportivon, Dixulan, Pol-Polen, Ariznoan eta Jam aretoan.

> HEZKUNTZA

Aransgi eskolak zeinuen hizkuntza ikastaroa antolatu du, eta urtarrilean hasiko dira eskolak

Gorrekin komunikazio ahalmenak hobetu nahi dituzten pertsonei zuzenduta, zeinuen hizkuntza ikastaroa antolatu du Aransgik, Udaleko Gizarte Ongizate sailaren laguntzarekin. Ikastaroa urtarrilean hasiko da, eta gaiarekin interesatutako guztiak har dezakete parte. Argibideak, 943 76 27 03 zenbakian.



GOIENKARIA



USAKO Argazkian, Usakoko presak gaur egun duen itxura.

J.R. TXINTXURRETA

ZERBITZUAK > USAKO

Usakon, zaintzaile bat egongo da uda partean

Udalak hainbat aldaketa egingo ditu Usakon, Osasun sailak jarritako baldintzetara egokitzeko

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Uda partean, Usakoko presan Oñatiko eta ingurueta herrietatik etorritako lagun asko ibiltzen da. Hala, 2008ko udalaldiari begira, Osasun sailak zehaztutako baldintzak onartu eta Usakon hainbat hobekuntza lan egiteko erabakia hartu du Udalak.

LKS ingeniaritza empresak egingo du Usakon egin behar diren berrikuntzak zehazten dituen proiektua.

URAREN KALITATEA

Gipuzkoako Osasun saileko zuzendaritzak egindako txostenean zehazten da, Usakon bainua

baimendu ahal izateko, bainuguneko uraren kalitatea ziurtatu egin behar dela. Halaber, bainatzeko ordutan, zaintzaile bat egongo da. Gainera, presak dituen gune arriskutsuetan eta salto egiteko tokietan, seinaleak jarriko dituzte.

Duxak eta edateko ura ematen duten iturriak eta paperontziak egitea, eta behar besteko maiztasunez garbiketa egitea aholkatzen du Osasun sailak.



Bidegorri sarea eskatzeko bizikleta irteera

Txirrinka taldeak antolatuta, irteera egin zuten egubakoitzean Oñatin. Hala, Foru plazan hasi eta herriko kaleetan barrena bueltatxo bat eman zuten irteeran parte hartu uzten bizikletazaleek.

Egubakoitzeko bizikleta irteeraren helburua bidegorri sarea eskatzea zen. Eskaera berberarekin, Oñati eta Arrasate artean bizikleta martxa egin zuten

urriaren 20an. "Oso pozik gaude erantzunarekin", esan ziguten Txirrinka taldekoek; "ekitaldi hau, gainera, hilero egiteko asmoa dugu, hileko hirugarren egubakoitzean". Halaber, Txirrinka taldekoek "begi onez" ikusten dute, eta "txalotu" egiten dute, Oñatiko Bizikleta Plana diseinatzeko enpresa bat kontratatzeko Udalak hartutako erabakia.

OBRAK > PARROKIA

Parrokiako berritu bariko horma konponduko dute

Teusa enpresak eraberrituko du eliza-atari eta Irizar estankoaren arteko horma zaharra

M.B. > OÑATI

Parrokiako kanpandorrean, klaustroa eta eliza-ataria zaharrerritzeko lanak bukatuta, atari nagusitik Irizar estanko aldera dagoen horma eraberritzeko baimena eman berri du Udalak.

Mikel Goiaingeruaren Parrokiako erretoreak, horma berritzeko, Iñigo Guibert eta Iñigo Arizpeleta arkitektoek egindako proiektua aurkeztu zuen. Hala, proiektuaren arabera, harria garbitu, eta junta guztiak ireki eta saneatu eta berriro itxi egingo dira. Aurreikuspenak betez gero, lanok bi hilabeteko epean egingo dituzte. Parrokiako kanpandorrean, klaustroa eta eliza-ataria zahar-

berritzeko lanak egin zituen Donostiako Teusa enpresa izango da lan horiek ere egingo dituena.

DIRULAGUNTZA

Baimena eskuetan, Parrokiako Lan Batzordeak emango duen hurrengo pausoa dirulaguntza eskaera egitea izango da. Haien asmoa eskaera hainbat erakundetan egitea da. Hala, ez dute herritarren artean ekarpent gehiago eskatuko. Izan ere, kanpandorrean, klaustroa eta eliza-atari nagusia eraberritzeko lanak finantzatzeko, herritarrei laguntza eskatu zien Parrokiako Lan Batzordeak. Hala, oraingo honetan, beste ate batzuk joko dituzte.



HORMA Argazkiko horma zaharra eraberrituko dute.

MIREIA BIKUÑA

GIZARTEA

Gaztetxearen aldeko sinadura bilketa

M.B. > OÑATI

Kasablankako gaztetxea eraitsi zutela bi urte bete direnean, Oñatiko Gazte Batzarrak Gazteriaren alde sinatuz, gaztetxea bultzatu izeneko kampaña hasi zuen azaroaren 10ean. Hala, herriko hainbat tabernatan sinadura emateko aukera dago; Boga, Guria, Arrano, Aker, Pako eta Ongi tabernetan, beste batzuen artean.

Halaber, atzo arratsaldean, batzarra egin zuten herriko plazan. Hala, beste behin, "autogestioan eta berdintasunean oinarriztutako gune aske eta publiko" bat izateko aldarrakapena egin zuten. Hotzari aurre egiteko, salda beroa banatu zuten.

ESKORIATZA > LEHIAKETA

Liburutegiko orri-puntua hautatzeko lehiaketa deitu dute

Irabazleak 300 euro jasoko ditu sari moduan, eta bere lana udal liburutegiko orri-puntua izango da datorren urtean

LEIRE KORTABARRIA > ESKORIATZA
Eskoriatzako liburutegian datorren urtean erabiliko dituzten orri-puntuak aukeratzeko lehiaketa deitu du Udalak, eta parte hartzeko epea zabalik dago azaroaren 30era arte. Edozeinek parte har dezake, inolako mugarik gabe.

Hauek dira lehiaketako oinarriak: orri-puntuaren neurria 21 x 5,50 zentimetro denez, aurkeztutako lanek neurri horietakoak izan beharko dute; teknika eta gaia libreak izango dira; eta egilearen izenik gabe aurkeztu behar dira lanak, atzealdean lelo bat dutela. Horrekin batera, gutunazal itxi baten,

lelo bera eta egilearen datuak adierazik dira. Lanak udal liburutegira eraman behar dira.

Epaimahaiak egokien iritzitako orri-puntuaren egileak 300 euroko saria irabaziko du; bere diseinua Udalaren esku geldituko da, eta berak izango du hura argitaratzeko eskubidea; horrez gain, datorren urtean, lan hori erabiliko dute liburutegiko orri-puntu gisa. Bestetik, Udalak erakusketa antolatu ahal izango du aurkezten diren lan guztiak.

SARRERAK BUKATU DIRA

Kultura arloko beste kontu batekin jarraituz, Udalak jakinarrazi du Pirritx eta Porrotx pailazozen muntaia berria ikustera joateko sarrerak dagoeneko bukatu direla. Azaroaren 9an, 1.400 sarrera jarri zituen salgai Udalak, eta guztiak ordu gutxi batzuetan erosia zituzten.

Pirritx eta Porrotxek *Eske-rrrik asko* delako ikuskizuna antzeztuko dute azaroaren 24an, datorren zaptauan.



JOSETXO ARANZABAL

Viteri dendako jabeek omenaldia jaso zuten

Omenaldi hunkigarria jaso zuten zapatu egerdian Viteri dendako arduradunek. Izan ere, Prudencio Viterik denda hori zabaldzu zuela ehun urte -seguruenik, gehiago ere, diote erreferentziek- bete dira, eta Eskoriatzako Udalaren, dendarien eta herriarren esker ona jaso zuten gaur egun denda daramaten Mari Mertxe eta Mari Carmen Viteri ahizpek. Herriko dendarien lore sorta eta, Udalaren izanean, bertso markoztatu batzuk jaso zituzten. Aurrekua ere dantzatu zieten.

ARETXABAleta > GIZARTEA

Gabonetako argiak ipintzen hasi dira, eta hemendik hiru astera isiotuko dituzte

Kolore askotako bonbillak jartzen hasi dira kale nagusietan, eta abendu hasierarako denak jartzea espero dute

L.K. > ARETXABAleta
Aretxabaletako kaleak hasi dira Gabonetarako janzen. Hala, egunotan ibili dira langileak Gabonetako argiak ipintzen herriko kale nagusietan zuhaitzetan. Hain zuzen, joan den astean, Duranen, Araba ibilbidean eta Lausitan lanean ibil ziren, eta Errekabarrenen, Santa Kurtzen, Mitaren eta kirol etxe aurrean ipiniko dituzte hurrengo.

Abendurako, argi guztiak ipinota egotea espero dute udal arduradunek; hala, bonbillak abenduko Zubian isiotza espero dute. Isiotuta jarraituko dute Errege egun ostera arte.

ENERGIA AURREZTEKO
Udal Kultura sailak eramatzen du ekintza hori. Sail horrek jakinarazi digu aurten ohiko



ZUHAITZA Zuhaitz batzuetan ipini dituzte bonbillak.

JOSETXO ARANZABAL

moduan apainduko dituztela kaleak; hau da, bonbillak jarriko dituztela. Hala ere, datorren urterako, berritasunak sartzeko asmoa dute, mota gehiago eta apaingarriak,

hain zuzen ere. Horrekin bateria, energia gutxiago kontsumitzen duten argiak erosteko asmoa dute datozen urteotaraka; aurten ez dute hori egiteko astirik izan.

ARETXABAleta > POLITIKA

Sexu-biolentzia saihesteko Udalaren "ekintza zehatzak" eskatzen ditu PSE-EEk

Aretxabaletako udal talde sozialistak erakundeen aldetik sexu-biolentzia gaitzesteko aitormen bat proposatuko du

L.K. > ARETXABAleta
Aretxabaletako PSE-EEko taldeak erakundeen aldetik emakumeen aurkako tratu txarren inguru aitormen bat bultzatuko du. Lau puntu batzen dituen aitormen proposamen bat egin dute, eta Udalaren aldetik konpromiso handiagoa eskatzen dute.

Sexu-biolentziaren aurkako nazioarteko eguna azaroaren 25ean, datorren domekan, da.

"GEHIAGO BEHAR DA"

Lehenengo, PSE-EEk dio sexu-biolentzia "giza arazoa" dela, "emakumeek emakume izateagatik soilik jasaten dutena", eta emakume horiei elkartasuna adierazi eta etxeko biolentzia gaitzetsi egiten dute. Gero, esaten dute erakunde publikoak biolentzia hori galarazteria konprome-

titu direla; "baina gehiago behar da; ahalegin politiko eta instituzional handiagoa behar da lege-eskubideak errealitate izan daitezen", diote.

Hirugarren puntuan, Aretxabaletan tratu txarren gaineko azterketa bat "ezinbesteko" jotzen dute, eta gai horretan dabiltsan elkartekin elkarlana proposatzen dute. Azkenik, sexu-biolentzia gaitzestea "beharrakoa" den arren, "Udalaren aldetik ekintza eta neurri zehatzak" behar direla diote.



ANTZUOLA > GURASOAK

Pausoka gurasoen elkartea berritu egin du zuzendaritza batzordea

Batzar orokorrean haurtzaindegia eta zaintza zerbitzua izan ziren gai nagusiak

Paco Cabrera izango da ikasturte berriko Pausoka elkarteko presidentea

AINTZANE IRIZAR > ANTZUOLA
Aurreko astean egin zuen urteko batzar orokorra Pausoka gurasoen elkartea. Hantxe, besteak beste, zuzendaritza batzordea berritu zuten.

Hamaika kidek osatzen dute batzordea; horietatik seik laga zuten kargua, eta sei kide berri aukeratu zituzten gurasoek, bozketa bidez.

Batzordea laga dutenak honakoak dira: Olatz Altzelai, Nerea Irizar, Nerea Ruiz, Bakarne Gasparrares, Mikel Kerexeta eta Amaia Toledo. Euren ordez sartu dira honakoak: Josu Errasti, Igor Labaien, Arrate Aranguren, Iñaki Askasibar, Nekane Berasategi eta Aitor Elkoro.

Iaztik batzordean jarraitzen dutenak, bestalde, honakoak dira: Paco Cabrera, Edurne Gabilondo, Jesus Gardoki, Ander Lezea eta Patxi Legorburu.



KIDEAK Zuzendaritza batzordeko hainbat kide, eguzteneko batzarraren aurretik.

ZAINTA ETA HAURTZAINDEGIA

Asteleheneko batzar orokorreko gai nagusiak horiexek izan ziren: zaintza zerbitzua eta haurtzaindegia, alegia. Haurtzaindegiaarekin dagoen arazo da leku falta dagoela; hau da, itxaron zerrrenda dagoela, eskaera asko dagoelako. Datorren urteari begira, erronketako bat horixe izango da, haurtzaindegiaaren arazari irtenbidea bilatzea, alegia.

Bestalde, zaintza zerbitzua ere hizpide izan zuten. Zerbitzu hori eskaintzeko lokala eskolan dagoen arren, Pausoka arduratzentzat da zerbitzu hori kudeatzetaz. Bi urterako proiektua zen, hasieran, zaintza zerbitzua jartzear. Hortaz, oraingo ikasturte amaieran, balarazioa egin beharko dute, eta erabaki zerbitzu horrekin aurrera jarraitu edo ez. Bide batez, Matz-Erreka eta Goizper enpresei eskerrak eman nahi izan zizkien Pausokak, zaintza zerbitzua finantzatzeko eman dituzten dirulaguntzengatik.

PARROKIAN, BATZARRA

Bihar, martitzena, 20:00etan, batzar irekia egingo du Errukizko Amaren parrokiako batzordeak, parrokiako aretoan. Batzar horretan parte hartzea dei egiten diez herriar guztiei. Batzarraren helburua da parrokiako lanen berri ematea, eta lan horiek finantzatzeko bideen berri. Badira aste batzuk lanekin hasi zirela.

ARAMAIO > UDALA

EAJren jesarleku bat, hartu barik

Iñaki Nafarrateren dimisioaren ostean, EAJk Udalbatzan duen hirugarren zinegotziaren eserlekua hutsik dago

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Iñaki Nafarrate EAJKo zinegotzi ohiak irailaren 7an aurkeztu zuen dimisioa Aramaiko Udalean, Arabako Foru Aldundira joatea erabaki zuelako, zuzendaritza kargua betetzera.

Ordutik, Jose Mari Vilchesek bete du bere postua, hau da, Vilches da orain EAJKo bozeramailea Aramaiko Udalean. Angel Diaz de Zerio da EAJK Udalbatzan daukan bigarren zinegotzia, eta hirugarren

jesarlekua hutsik dago Iñaki Nafarrate Aldundira joan zenean.

Hauteskunde Batzordeak EAJren zerrendan laugarrenaren zenari proposatu dio eserlekua hori, Juan Miguel Loitiri, hain zuen ere. Aramaiko Udaleko iturriek azaldu digute, baina, oraindik ez dutela Lotaren aldetik erantzunik jaso, eta dakiten bakarra dela Hauteskunde Batzordeak bera proposatu duela hirugarren eserlekua betetzeko.

Beraz, oraingoz, Aramaio-arrerek ez dakte zeinek beteko duen postu hori. Azkeneko osoko bilkuran, EAJKo zinegotzi bi egon ziren bakarrik. Ikusi egin beharko da, orain, hilaren 28an egingo den osoko bilkurarako Eusko Alderdi Jeltzaleak hirugarren zinegotzia aurkezten duen.

ELGETA > KULTURA

Munduko dantzen ikastaroa martxan

Aurreko urteko esperientzia ona izan zen eta, aurten ere, Munduko Dantzen gaineko ikastaroa emango du Patxi Monterok Elgetan

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Atzo egin zuten Munduko Dantzen ikastaro lehenengo saioa Elgetan. Patxi Montero izango da aurten ere irakaslea, eta munduko toki askotako folkloroko parte diren dantzak era-kutsiko ditu; "errazak, oso dibertigarriak eta oso politak", esan dute antolatzaleek.

Monterok irakasten dituen dantzak Kaukasoa, Israel, Turquia, Grezia, Errusia, Frantzia, Irlanda... Europa osokoak eta inguruoa dira. Guztia taldean dantzatzen direnak, askotan borobilean. Saio amaieran, gainera, dantza meditatiboak egiten ditu irakasleak.

SAIOAK, DOMEKA GOIZETAN

Atzo egin zuten lehenengo saioa, eta hil bakotzeko hirugarren domekan elkartuko dira, ekainera bitartean, 11:00etatik 13:30era.

Bi ordu eta erdiko zortzi saio izango dira, eta 40 euro ordaindu beharko dira. Saioen hiru laurdenetara joaten denari %10 itzuliko zaio.

Ikastaroa hasi bada ere, beste inor animatzen bada, garaiz dabil. Izena emateko, udalbatxera jo besterik ez dago. "Gure helburua ez da perfektioa", esan zuen Monterok. "Gure helburua dantzan ondo pasatzea da".

LEINTZ GATZAGA

Udalaren eraikinak garbitzeko lanen deialdia

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Udalarenak diren hainbat eraikin garbitzeko zerbitzua kontrataztea erabaki zuen udalbatzak urriaren 25eko osoko bilkuran, eta azaroaren 16ko GAOn argitaratu zituen oinarriak. Udaletxea, eskola eta kultur etxe-ludoteka eta liburutegia barne-garbitzeko izango da zerbitzua.


Garbitasun lanak egiten zituen aurreko enpresak kontrataua bukatuta zeukan, eta berrixtea zegokion Udalari. Hori horrela, lehiaketa bidez hautatuko du eta bi urterako egingo diote kontrataua, beste bi urte luza daitekeena. 14.500 euroko aurrekontua aurreikusi du Udalak zerbitzuaren dako. Abenduaren 3an bukatuko da eskaerak egiteko epea. Argibide gehiago gura dituenak udalbatxera jo dezala.

Kirola



> FUTBOLA

Mondrak 1-1 berdindu zuen Ordiziaren aurka Mojategin > **16**



> ERRUGBIA

Beteranoek irabazi egin zuten, eta neskek, galdu > **20**



> SASKIBALOA

Mondragon Unibertsitateak 82-53 irabazi zuen Iturripen > **21**



> ELKARRIZKETA

Haimar Zubeldia Euskalteleko txirrindulariarekin izan gara > **22**



TAULA GINEAN Oregi, Irizar eta Altube, oholtza ginean; aldamenetan, Velasco eta Zubeldia.

ARANTZAZU EZKIBEL

JAIA > MARKELEN LAGUNARTEA

Tourmaleta baino gogorragoa egin zitzaien spinning saioa

MARKEL IRIZAR

Markelen Lagunarteak antolatuta, spinning saioa eta bazkaria egin zitzuten zapatuan

TXIRRINDULARIAK

Zubikoan egindako spinning saioan, Iban Velasco eta Joseba Zubeldia ere izan ziren

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

Ziklistak ohituta daude bizikleta hartu eta bidera irtetera, kilometro mordoa egitera. Ez daude ohituta, baina, bizikleta ginean jarri eta lau pareta artean pedalei eman eta eman ibiltzera. Bada, hori izan zen zapatuan Markel Irizarren Lagunarteak antolatu zuena; eta han izan ziren Markel Irizar bera, Iban Velasco eta Joseba Zubeldia txirrindulariak.

URTEROKO OSPAKIZUNA

Markelen Lagunarteak urtero antolatzen du denboraldi amaiarako jaia. Aurten, bazkaria egiteaz gain, spinning saio berezia egitea pentsatu zuten; hala, Zubikoa kirolegiko arduradunei galdeitu ondoren, ordu beteko spinning saioa egin zuten zapatuan.

Irakasle lanetan, Jon Oregi Markelen Lagunarteko kidea eta

Leire Altube spinning irakaslea egon ziren. "Aurten, zerbait berezia egin behar zela pentsatu zuen Oregik", esan zuen Irizarrek. "Kirola egin eta lagunartean ondo pasatzea izan da helburua", gaineratu zuen txirrindulari ofiariak.

Ondo pasatu bai, baina izerdi ederra ere bota zuten bertara

joandako lagunek. Hamabost lagun inguru elkartu ziren Zubikoa kirola egiteko, eta Oregi eta Altubek jarritako erritmoari eustea ez zen samurra izan: "Gogorra izan da; Velascok pultsometroa ekarri du, eta entrenamenduetan baino erritmo gogorragoan ibili dela esan digu", azaldu zuen Irizarrek, barrez.

Behin izerdia botata, dutxa hartu eta indarrak berreskura-tzera joan ziren Lagunarteko kideak Oñatiko Zott jatetxera. Spinning saioan egotekizun ez zuen Haimar Zubeldia Euskalteleko txirrindularia ere joan zen bazkarira. Seguru, kirolegian egon ziren baino gehiago elkarrengatik zirela mahaiaren bueltan.

ESANAK

"Haimar Zubeldia eta Patxi Vila ez dira etorri; Zubeldia bazkaltzera etorri da, eta Vilak bere lagunarteko izan du"

Markel Irizar > Txirrindularia

"Datorren urtera begira, laster hasiko naiz entrenatzetan; hilabete hauetan, nahiko lasai ibili naiz, lagunarteko giroan"

Markel Irizar > Txirrindularia

"Errepidean ibiltzea edo spinning egitea ezberdina da; baina garrantzitsuena ondo pasatzea izan da, eta hori lortu dugu"

Joseba Zubeldia > Txirrindularia

PREFERENTE MAILA > MONDRA-ORDIZIA

Gehiago merezi izan arren, berriro ere berdinketa Mojategin

MONDRA

1-1

ORDIZIA

Mondra > Calvo, Andoni, Illart (Loiti, 55. min.), Castelos, Laspur, Gotzon, Keixi, Heriz (Luna, 83. min.), Murua, Lopez, Ekián (Alzola, 50. min.).

Ordizia > Martín, Arkaitz, Iker (Sergio, 71. min.), Gorka, Jon, Sevilla, Yassine (Usabiaga, 85. min.), Gómez, Usabiaga (Aitor, 59. min.), Aitzol, Xabier.

Epailea > Enrike jauna.

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

Badirudi Mondra azkeneko minutuan puntuak galtzen ohi du dela; zapatuan, hirugarren aldiz jarraian, denboraz kanpo jaso zuen etxeko taldeak berdinketaren gola. Modu horretan, bi puntu ihes egin zuten Mojategitik.

LEHENENGOKO ZATIA, TXARRA

Etxeko taldeari kosta egiten zaio hasieratik partiduan sartzea; hala, lehenengo zatian, nahiko motel ibili ziren arrasatearrak. Ez ziren zelai erdiaren jabe egin, eta baloi dezente galdu zituzten. Baina aurrean zuten jokalariek ere ezer gutxi egin zuten. Hori dela eta, lehenengo zatiko 25. minutuan, markagailuan aurretik jartza lortu zuten etxeakoek. Atzeldean, Laspurrek hasitako jokaldi baten ondoren, Lopezek baloia sareetan sartu zuen. Atse-



ETXEBARRIA Mondrako jokalari Illart Etxebarria, baloirekin.

JOSEKO ARANZBAL

denera markagailuan aurretik joateak mesede egin zien arrasatearrei. Hala, bigarren zatian, gehiago izan zen etxeko taldea. Aparteko jokorik egin gabe, Mondrak bigarrena egiteko aukerak izan zituen: Garinek area barru-

ko jaurtiketa batean eta Gotzonek buruz errematutako beste batean, adibidez.

DENBORAZ KANPO

Azkenean, baina, Ordiziak egin zuen gola, arauzko 90 minutuak

pasatu zirenean. Beste behin, Mondrak azkeneko momentuan galdu zituen bi puntuak.

Zapatuko berdinketa eta gero, Mondra sailkapeneko 10. postuan dago. Datorren astean, Berioren aurka jokatuko dute.

PREFERENTE MAILA > IDIAZABAL-MONDRA

Lasaitasunerako merezitako garaipena lortu zuen Aloñak

Roberto Idigorasek egin zituen Arizkorreta zelaian jokatutako Idiazabalen aukako partiduko bi golak

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Zestoaren aukako hiru puntuak lortu ondoren, bigarren garaipena jarraian eskuratu zuen Aloñak zapatu, Idiazabalen aukako partidua irabazita (1-2). Hala, sailkapenean, lasaitasuna emanen dituen puntuak merezimendu osoz eskuratu zituen Josu Zubiaren taldeak. Hortaz, Aloñak 16 puntu ditu sailkapenean.

ALOÑA, ONDO

Orokorean, norgehiagoka ona jokatu zuen Aloñak Arizkorreta

futbol zelaian. Lehenengo zatian, Roberto Idigorasek egindako golak lasai jokatzeko aukera eman zien oñatiarrei. Bada, Idiazabalek berdinketa egin zuen atsedenaren aurretik. Korner erdiraketa baten aldaratzea aprobatutz, Idiazabalgo jokalari batek bigarren erdiraketa egin zuen, eta aurrelaria buruz egin zuen berdinketaren gola.

BIGARREN ZATIAN

Aloñak Idiazabal baino talde sendoa dela erakutsi zuen zapatuan. Hala, bigarren zatian, oñatiarrek erabateko nagusitasuna erakutsi zuten. Bigarren gola egiteko, hainbat aukera izan zuten; haietako kontraeraso batean egin zuen Idigorasek bigarren gola. Markagailuan abantaila hartuta, Aloñak ez zuen sufritu garaipena eskuratzeko.

PREFERENTE MAILA > AURRERA-UDA

UDAk bere atean gola eginda galdu zuen partidua

Ondarroan egindako jokoaz, pozik daude aretxabaletarrak; ez, ordea, han lortutako emaitzarekin

A.E. > BERGARA

Ondo jokatzea ez da nahikoa iza-tent partidu bat irabazteko. Gola egitea ezinbesteko da hiru puntuak lortzeko; eta, gola egiteaz gain, epaileak ontzat ematea ere ezinbestekoa da. Bada, zapatuan, Aretxabaletako taldeak ondo jokatu zuen, gola ere egin zuen, baina epaileak ez zuen ontzat eman. Hala, partidua amaitzeko 10 minutu falta zirela, zoritzarreko jokaldi batean, Ibon Gonzálezek bere atean sar-tu zuen baloia, eta, ondorioz,

hiru puntuak Ondarroan geratu ziren.

PENALTIA ETA GOLA

Lehenengo zatian, oso joko ona egin zuten aretxabaletarrek; Fito delegatuaren esanetan, "orain arte egindako joko one-na" izan zen zapatuko.

Iban Espinosari penaltia egin zioten lehenengo zatian, baina epaileak ez zuen adierazi. Gero, 44. minutuan, David Espinosak, falta bidez, baloia sareetan sartu zuen; baina epaileak falta adierazi zuen, eta ez zuen ontzat eman gola. Hortaz, atsedenera, huts eta hutsek berdinketarekin iritsi ziren.

Bigarren zatian, jokoak berdintsu jarraitu zuen, baina, 80. minutuan, aldaratze baten ondoren, Ibon Gonzálezek bere atean sartu zuen baloia.

emaitzak eta sailkapenak

PREFERENTE MAILA

Sailkapena	Puntuak	JP
1. Real Union	23	11
2. Aurrera	21	11
3. Trintxerpe	21	11
4. Ordizia	20	11
5. Berio	18	11
6. Aloña Mendi	16	11
7. Hernani	16	11
8. UDA	16	11
9. Euskalduna	15	11
10. Mondra	15	11
11. Zestoa	15	11
12. Anaitasuna	14	11
13. Zumaiako	13	11
14. Hondarribia	12	11
15. Vasconia	11	11
16. Eibartarrak	9	11
17. Idiazabal	8	11
18. Touring	6	11

Emaitzak

Zumaiako-Zestoa	0-1
Idiazabal-Aloña Mendi	1-2
Anaitasuna-Vasconia	3-2
Eibartarrak-Real Unión	0-3
Hernani-Hondarribia	1-2
Trintxerpe-Berio	2-1
Mondra-Ordizia	1-1
Touring-Euskalduna	0-1
Aurrera-UDA	1-0

Hurrengok

Zestoa-Idiazabal	
Aloña Mendi-Anaitasuna	
Vasconia-Eibartarrak	
Real Unión-Hernani	
Hondarribia-Trintxerpe	
Berio-Mondra	
Ordizia-Touring	
Euskalduna-Aurrera	
UDA-Zumaiako	

BESTELAKOAK**LEHENENGOKO ERREGIONALA**

Bergara-Ilintxa	2-2
Orioko-Antzuola	0-5

BIGARREN ERREGIONALA

BTLS-Zestoa	4-0
Mondra-Elgeta	2-1
Ikasberri-UDA	0-2

EMAKUMEZKOAK

Lagun Onak-BTLS	1-3
Urola-Mondra	3-2
Arizmendi-Bergara	5-1
Elgoibar-Arizmendi B	8-0

OHOREZKO GAZTEAK

Aloña Mendi-Bergara	5-1
UDA-Mondra	2-1

LEHENENGOKO MAILAKO GAZTEAK

Eibartarrak-Bergara B	5-3
UDA B Arizmendi-Eibartarrak B	2-0

OHOREZKO KADETEAK

Bergara-Aloña Mendi	1-2
Bergara B-Arrasate	0-14

LEHENENGOKO MAILAKO KADETEAK

Soraluze-UDA B	2-7
Arizmendi	atsedena
Bergara B-Arrasate	0-14

KADETE NESKAK, F11

Beasain-Aloña Mendi	8-0
Anaitasuna-Arizmendi	1-2

"Denok orar dezagula, naturaltasunez, Ionen elbarritasuna".

Ane, Elgeta.

Zuk horixe nahi duzu, eta gu horrexetarako ari gara lanean. **Kutxa** ongi asko dakigulako gaur esaten diguzuna entzuten, bihar zure nahiak gauzaturik ikusi ahal izan ditzazun. Zuri esker ari baita, egunero, gorantz egiten **kutxaren** Gizarte-Ekintza.

zer nahi duzu bihar?

kutxaren 2007ko Gizarte Ekintza

76 milioi euro
1.200.000 onuradun
4.300 jarduera Gipuzkoan

Osasuna

Gizarte-Laguntza 3 milioi, mendekotasuna duten pertsonentzako proiektuak abian jartzeko

Elkartasuna

Hezkuntza

Ikerkuntza eta Enplegua

Kultura

Aisialdia

Ingurumena



zer nahi duzu bihar?



Karaoke Ikuskizuna

Bergarako Jam Aretoan

Antzuola eta Bergara umeak


Azaroaren 25ean

- 1. saioa: 16:30ean
- 2. saioa: 17:15ean

- 3. saioa: 18:15ean
- 4. saioa: 19:15ean

Zatoz zure herriko kantariak animatzera!!

BABESLEA




gaztetxoen
elkartea
club juvenil

ANTOLATZAILEA



Komunikazio Zerbitzuak

LAGUNTZAILEAK



OÑATI

Eskola kiroleko hitzordua izan zuten Oñatiko 4. mailakoek

KANTXA URDINA Gaztetxoak Zubikoa kirolegiko kantxa urdinean ibili ziren eskubaloian eta areto futbolean

4. MAILA Neskak eta mutikoak ibili ziren zapatuauki jokatutako jardunaldia laugarrena izan zen.

Zubikoa kirolegira hurbildu ginen zapatu goizean; han, hotzari aurre eginez, neska-mutikoak talde polita aurkitu genuen, kirola egiteko prest. Batzuek kirolegi zaharrean jokatu zituzten partiduak, kantxa berdean, eta beste batzuek, kirolegiko kantxa berrian, urdinean.

ESKUBALOIA ETA ARETO FUTBOLA Laugarren mailako neskak eskubaloian ibili ziren zapatuauki. Partidua hasi baino lehenago, baina, eskola kiroleko arduradunak hainbat gomendio eman zizkien neskei. Gomendioak, batik bat, eskubaloian jokatzeko arauak izan ziren. Gomendioak gogoan hartuta, Pagoak eta Haritza taldeko neskek partidua hasi zuten.

Aldameneko kantxan, Urbia eta Aratz taldeko mutikoak ibili ziren; haien areto futbolean jokatu zuten. Ilusioarekin hasi zuten partidua; gogoz jokatu zuten umeek. Amaieran, batzuk pozik zeuden, irabazi egin zutelako, eta beste batzuk, berriz, ez hainbeste. Ikasleek badakite, baina, eskola kirolean garrantzitsuena parte hartzea dela.

ENTRENAMENDUAK Eskola orduetan egiten dituztela entrenamenduak aitorri dugute Oñatiko umeek. Hala ere, helburu nagusia ondo pasatzea eta lagunekin jolastea izaten da.



ARANTZAZU EZKIBEL

Pagoak. Nahia, Uxune, Goreti, Jone, Ainhoa, Mirian, Ainhoa, Itziar eta Norak osatzen dute taldea.



ARANTZAZU EZKIBEL

Haritza. Maialen, Nagore, Naroa, Dayi, Kristina, Leire, Ainhoa, Leire, Itziar eta Anek osatzen dute taldea.



ARANTZAZU EZKIBEL

Uribia. Joxe Manuel, Xabier, Jon A., Enaitz, Aitor, Unai B., Aritz, Unai U. eta Jon A. dira taldekoideak.



ARANTZAZU EZKIBEL

Aratz. Ander G., Ander B., Mikel, Beñat, Eric, Urko eta Imanolek osatzen dute taldea.



GOGOR ENTRENATZEN DUZUE?



Ainhoa eta Itziar
Pagoak



Uxune eta Nahia
Pagoak



Maialen eta Leire
Haritza



Ane, Kristina eta Dayi
Haritza

"Partidua jokatu baino lehenago entrenatzen dugu; baina, batez ere, eskola orduetan egiten ditugu entrenamenduak. Gimnasiako orduetan, esaterako, irakasleak eskubaloian jokatzeko arauak erakusten dizkigu. Baita ere beste kirol batzuetan jokatzeko arauak ere: futbola edo saskibaloia, esaterako".

"Eskolako gimnasia orduetan entrenatzen dugu, eta baita jolas-orduan ere. Hala ere, eskubaloian ez dugu asko jokatzen; futbolean edo saskibaloian jokatzeko ohitura handiagoa dugu. Partidu aurretek, ondo dago zerbaitek entrenatzea; hala, partidua hobeto jokatu dezakegu".

"Ibarran entrenatzen dugu; eskola orduetan eta multikiroleko orduetan ibiltzen gara. Gimnasiako orduetan, irakasleak irakasten dizkigun arauak partiduetan betetzen saiatzen gara. Eskolako jolas-orduetan, berriz, ez dugu entrenatzen; orduan, jolastu egiten dugu".

"Egubakoz arratsaldeetan, jolas-orduan eta multikiroleko orduan entrenatzen dugu. Gehienbat, futbolean eta saskibaloian entrenatzen gara; eskubaloian, berriz, ez gara hainbeste ibiltzen. Ondo datorrigu entrenamendu pixka bat egitea partiduaren aurretek; hala, hobeto jokatzen dugu".

ERRUGBIA > ARRASATE-EIBARTARRAK

Arrasateko beteranoen taldeak eibartarrak menderatu zituen

Arrasateko beteranoek Mojategiko partidua hasieratik argi menderatu zuten

Nesken taldeak galdu egin zuen denboraldian etxetik kanpo jokatu zuen lehenengo norgehiagoka

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE
Beteranoen mailako errugbi partidua jokatu zuten, zapatuan, Mojategin, Arrasate eta Eibartarrak taldeek. Lehia hasteko orduan egiten zuen hotzari aurre eginez, etxeko taldeak irabazi zuen norgehiagoka (10-7).

Zapatuko lehia giro onean jokatu zen. Aspalditik elkar ezagutzen duten jokalari eta lagunak elkartu ziren errugbi zelaian. Partidu bukaerako emaitza ikusita, argi dago lehiak gorabehera asko izan zituen. Edozelan ere, Arrasateko taldeak menderatu markagailua partiduko minutu gehienetan.

AURRETIK

Lehia hasi bezain laster, arrasatearrek, eskuz joko azkarra dute la erakutsiz, bi entsegu egin zituzten. Abantaila hark partidua lasaiago jokatzeko aukera eman zien. Edozelan ere, Eibartarrak taldeak joko ona erakutsi zuen, baina etxeekoek zabaldutako tar-



ERASOA Argazkian, Arrasateko taldeko jokalari bat, erasoan.

JOSETXO ARANZABAL

teak lehia irabazteko aukera gutxi eman zien. Hala, zazpi entsegu egin arren, partidua galdu egin zuten.

NESKAK

Arrasateko nesken errugbi taldeak etxetik kanpoko lehenengo norgehiagoka jokatu eta galdu egin zuen zapatuan (96-0).

Arrasateko taldeak ez zuen Mungian jokatutako partidua irabazteko aukerarik izan. Edozelan ere, arrasatearrek lehenengo zati ona egin zuten. Bigarrenean, mungiarrek talde sendoa-goa dutela erakutsi zuten, eta arazo barik lortu zuten garaipena. Hortaz, Mikel Kerejetak entrenatzen duen taldeak itxaron egin

beharko du denboraldian lehenengo aldiz irabazteko.

ESKOLA KIROLA ETA SENIORRAK

Arrasateko errugbi taldeko senior mailako taldeak aste bukaeran atsedean izan zuen. Halaber, eskola kirolaren barruan, zapatu goizean, hainbat neska-mutilik errugbian jokatu zuten.

ESKUBALOIA

Aloñako neskek puntu bat lortu zuten

EREINTZA

21-21

ALOÑA MENDI

M.B. > BERGARA

Aurreko jardunaldian Elgoibarren aurka erakutsitako joko eta irudia aldatuta, Aloñako senior mailako neskek puntu bat eskuratu zuten Ereintza taldearen aurka. "Oso ondo jokatu dugu, intensitate handiarekin eta defentsan lan sendoa eginez. Halaber, Idurre atezaik egindako lana azpimarratu nahiko nuke", esan zigun oñatiarren entrenatzaile Maitane Ruizek.

PARTIDUA

Joko hobea egin arren, partiduko lehenengo minutuetan Ereintzak menderatu zuen lehia. Lehenengo zatian, gehienez, sei goleko errenta izan zuen. Bada, oñatiarrek, 1-7ko partzialari esker markagailua txukundu zuten.

Atsedenaren ondoren Ereintza taldea izan zen berriro ere markagailuan tartea zabaldu zuena. Hala, lau goleko tartea zabaldu zuten. Bada, Aloñako neskek markagailuari buelta emanez, gol bateko abantaila hartu zuten. Hala, bukatzeko 30 segundo geratzen ziren aurretik, eta Ereintzak nahiko denbora izan zuen norgehiagoka berdintzeko. Amaieran puntuak banatu zituzten bi taldeek.

Aste bukaeran, Gasteizko Ehiarrialdea taldearen aurka jokatuko dute Oñatin.

e maitzak

MAILAZ MAILA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Romo-Bergara	25-23
Jorge Fernandez-Frod Mugarratzeratuta	

NESKEN EUSKADIKO TXAPELKETA

Ereintza-Verkol Aloña	21-21
-----------------------	-------

LEHENENGOKO TERRITORIALA

Arrasate eskubaloio-Hegirialdezeratuta	
--	--

BIGARREN TERRITORIALA

Bergara-Alleru	30-33
Leizaran-Aloña Mendi	32-22

GAZTE MUTILAK

Usurbil-Arrasate	21-18
Aloña Mendi-Egía	31-23

GAZTE NESKAK

Bera Bera-Aloña Mendi	22-24
-----------------------	-------

KADETE MUTILAK

Euskalduna-Berezao Aloña	24-33
Bergara-Hondarribia	24-25

KADETE NESKAK

Bera Bera-Verkol Aloña	26-21
------------------------	-------

ROMO
25-23
BERGARA

ESKUBALOIA > EUSKADIKO TXAPELKETA

Partidua galdu arren, irudi ona erakutsi zuen Bergarak

Romoren aurka jokatu zuen Bergarak, zapatuan, Euskadiko Txapelketako jardunaldiko lehia

M.B. > BERGARA
Euskadiko Txapelketa hasi zenetik, etxetik kanpo jokatu dituen partiduetan emandako itxura asko hobetu zuen Bergarak zapatuan. Romoren aurrak lehia galdu arren, "gustura" bukatu zuten norgehiagoka.

ROMOREN AURKA

Zapatuko lehiak bi zati ezberdin izan zituen. Lehenengo zatian, Josetxo Muniategiren taldeak joko eskasa egin zuen. Bergarak baja garrantzitsua izan zituen zapatuan, eta hutsune haiet betetzeko, gazte mailako taldeko lau jokalari lehiatu ziren. "Egia esan, gazte mailako jokalarietan ona egin dute, genituen hutsuneak betetzeko gai izan dira-eta", esan zigun Bergarako entrenatzaile Josetxo Muniategik.

Hasierako minutueta, defentsa arazo asko izan zituzten mahoneroek. Hala, defentsa aldatu

beharra izan zuten. Halaber, Bergarak erasoan egiten dituen joko azkarra eta kontraerasoak egiteko, arazoak izan zituen. Horregatik guziagatik, lehenengo zatian, bost goleko tarteak zabaldu zuen Romo taldeak. Edozelan ere, atsedenean, bakarrik bi goleko erreneta zuten bizkaitarrek (16-14).

Atsedenetik bueltan, helburu bakarrarekin irten ziren kantxara Bergarako jokalariak: markagailua berdintzea. Bada, Romok zabaldu zuen, beste behin, markagailuko tarteak lau golera. Handik aurrera, Bergarak asko hobetu zuen jokoak.

BERDINTZEKO AUKERA

Norgehiagokako minuturik gehienetan, atzetik ibili arren, mahoneroek partidua berdintzeko aukera izan zuten. Markagailua 24-23 erakusten zuenean, Bergarak lehia berdintzeko era soa izan zuen. Bada, jaurtiketarako aukera txarra egin zuten. Hurrengo jokaldian, Romok partiduko azkeneko gola egin zuten.

Partidu amaieran, pozik zeuden Bergara taldeko jokalariak eta arduradunak, "denboraldian, lehenengo aldiz, etxetik kanpo partidua irabazteko aukera" izan zuten-eta.



MONDRAGON UNIBERTSITATEA Atzoko partiduko une bat.

JOSETXO ARANZABAL

1. MAILA > MONDRAGON UNIBERTSITATEA-OCASO BERRIO OTXOA

Sailkapeneko azkena hartu zuten mendean

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

82-53

OCASO BERRIO OTXOA

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

Irabazteko partidu samurra izan zuten atzo Mondragon Unibertsitateak Bilboko Ocaso Berrio Otxoaren aurka; izan ere, bilbotarrak sailkapeneko azkeneko postuan daude. Baino, era berean, Iturripera hurbildutako zaleentzat ez

zen partidu ona izan. Bilbotarrrek motel jokatu zuten eta, lehia-ko momentu batuetan, etxeko jokalariaiak kutsatu egin ziren moteltasun hartaz.

AZKENEKO LAURDENEAN, GORA
Lehenengo laurdenetik jarri ziren etxe-koak markagailuan aurretik; hala, lehenengo laurde-neko emaitza 20-12 izan zen. Gero, etxeko jokalariaiak partidu guztian zehar emaitza horri eusteko gai izan ziren. Beste laurdenetako emaitzak ondorengoak izan ziren: bigarren laurdenea, 38-25;

hirugarren laurdenea, 55-44; eta azken emaitza, 82-53.

Partidu samurra izan arren, emaitza ez zen uste besteko mar-dula izan, Merino entrenatzalearen ustetan. Izan ere, saskiratze samur asko huts egin zituzten etxe-koek. Gainera, Alarciak ez zuen jokatzerik izan, eta haren falta asko igarri zuen taldeak. Bestalde, atzo saskiratze gehien Iñigo Biainek egin zuen: 21 tanto.

Datorren astean, Valsay Ardoi talde nafarraren aurka jokatuko dute; lehia zaila aurreikusten da.

GIPUZKOAKO TXAPELKETA > 4. JARDUNALDIA

Igoera fasea jokatuko du senior mailako taldeak

ALOÑA MENDI

60-54

INTERNACIONAL

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Internacional taldearen aurkako norgehiagoka irabazita, Aloñako senior mailako taldea igoera faserako sailkatu da. Gorka Judezen taldeak lehenengo faseko lau partiduak irabazi ditu. Hala, aste bukaeran hasita, beste bederatzi talderekin igoera fasean lehiatuko da: guztira, 18 partidu jokatu-

ko dituzte. Igoera faseko lehenengo hiru taldeek lehenengo mailan jokatzeko eskubidea izango dute. Senior mailako taldearen helburua horixe lortzea da.

PARTIDUA

Aloñak eta Internacional taldeak zapatuan jokatu zuten partidua oso txarra izan zen. Etxeko taldeak agindu zuen markagailuan minuturik gehienetan, baina, erasoan, jaurtiketa garbiak aurkitzeko arazo asko izan zituzten. Halaber, donostiarrek talde ahula dutela erakutsi zuten, eta ez zituzten oñatiarrek egindako hutsak aprobetxatu partidua irabazteko.



ARANBURU Saskiratzea egiteko gertu Aranburu.

GIPUZKOAKO 1. MAILA > BERGARA

Candyk 82-61 galdu zuen Oiartzunen aurka

Zortzigarren jardunaldia eta gero, Bergarak azkeneko postuan jarraitzen du

ek; hora aurreko asteko jardunaldian izan zen, Labegaraieta-ko kiroldegian, 56-53 nagusitu zirenean bergararrak Donostia-ko Kevian Sport-en aurka.

MAILA BERRIA

Kontuan hartu behar da Bergarak aurten duela lehenengo urtea Gipuzkoako lehenengo mailan. Hortaz, mailari neurria hartzea zaila egiten ari zaie mahoneroei.

Datorren astean, berriro ere etxetik kanpo jokatzea egokituko zaie bergararrei. Donostia-ko La Salleren aurka jokatuko dute, hain zuzen.

GIPUZKOAKO TXAPELKETA > 5. JARDUNALDIA

Defentsako lanari esker irabazi zuen Eskoriatzak

Senior mailako nesken taldeak Bilintx menderatu zuen,
45-77 emaitzarekin

LEHIA GOGORRA

Eskoriatza eta Bilintx taldeek jokatutako partidua oso gogorra izan zen, tentsio handikoa. Bada, eskoriatzarrek, defentsan egindako lanari esker, hasieratik agindu zuten markagailuan. Hala, defentsan egindako lanak zabaldu zien garaipena eskuratzeko bidea.

Defentsan egindako lanari, taldeak erasoan izan zuen trebetasuna gehitu behar zaio. Horregatik guztiagatik, 28 puntuko abantailarekin bukatu zen partidua.

Eskoriatzako senior mailako nesken taldeak bederatzi puntu ditu sailkapenean.

emaitzak

MAILAZ MAILA

LEHENENGOKO MAILA

MU-Berriko Otxoa 82-53

SENIOR MUTILAK

Oiartzun-Candy Bergara 82-61
MU-Tximista 54-50
Aloña Mendi-Internacional 60-54

SENIOR NESKAK

Eskoriatza-Bilintx 77-45

GAZTE MUTILAK

Internacional-MU 51-62
Aloña Mendi-Krafft 85-35

GAZTE NESKAK

Oiarso-Bergara 30-41
Irizar-Eskoriatza 30-62

KADETE MUTILAK

Oiartzun-Aloña Mendi 30-97
La Salle-MU 39-67
Take-MU 18-120

JOSETXO ARANZABAL

Euskaltel Euskadi taldeko txirrindulari Haimar Zubeldiak (Usurbil, 1977) Markelen Lagunarteak antolatutako denboraldi bukaerako bazkarian, profesional mailako hainbat txirrindulari egon ziren; tartean, Usurbilgo txirrindularia. Kontu askoren gainean berba egin genuen berarekin, bazkaria hasi aurretik.

narteak egindako gonbidapena onartu zuen eta, zapatuan, Oñatin egon zen bazkaltzen. Zapa-

tu goizeko entrenamenduaren ondoren hitz egin genuen harekin. Denboraldiaurrea hasi dute-

la esan zigun, eta, urte berriari begira, Tourra gorri kolorearekin duela ere bai.

Haimar Zubeldia > Euskaltel Euskadi taldeko txirrindularia

"Etorkizuna ez dakit ze kolorekoa izango den, oraingo kontratua bukatu ondoren"

MIREIA BIKUÑA > OÑATI
Emaztearekin eterri zen Haimar Zubeldia Oñatira. Markelen Lagunarteak antolatutako denboraldi bukaerako bazkarian, profesional mailako hainbat txirrindulari egon ziren; tartean, Usurbilgo txirrindularia. Kontu askoren gainean berba egin genuen berarekin, bazkaria hasi aurretik.

Zer moduz Oñatira egindako bisita?

Oso gustura egon gara. Markelen Lagunarteak egindako gonbidapenari ezin nion ezetzik esan. Markel Irizar aspalditik ezagutzen dut, eta berarekin harreman ona dugu anaia Josebak eta biok.

Bazkarira eterri aurretik, entrenatzen egon zara. Denboraldiaurrea urteko sasoirik gogorrena da?

Egia esan, bai, nahiko gogorra izaten da, batez ere, hasierako egunak. Orain hilabete hasi ginen entrenatzen. Prestataile fisikoek bidaltzen digute jarraitu beharreko plana, eta, gero, norberak du bere buruaren ardura.

Azken aste hauetan, batez ere, gimnasioan, mendiko bizi-kletarekin eta errepidean ibili naiz, oporretan egon naizen egunetan hartutako kiloak kentze-ko. Nik, normalean, lau edo bost kilo hartzen ditut. Bada, entrenatzen hasten naizenean, berehalaka galtzen ditut.

Oporrak aipatu dituzunez, zer egin duzu lasterketarik egon ez diren egunetan?

Normalean, bidaiaaren bat egiteko aprobetxatzen dugu; bada, emaztea irakaslea da, hortaz, nik oporrek ditudanean, hari lana tokatzen zaio. Hala, aurten, ez dugu bidaiarik egin. Edozelan ere, oporretan, urteko gainontze-ko hilabeteetan egiten ez duguna egiteko aprobetxatzen dugu etxelean lasai egon, lagunekin afariak egin eta, aste bukaeretan, irteerak antolatu, besteak beste.

Urte hasieran, Benidorm aldera joateko ohitura du Euskaltel Euskadik.

Txirrindularitzarik denboraldia otsailean hasten denez, urtarrilean, Benidormera joaten gara. Urtarrilean, kilometro asko egin behar ditugu, eta hemengo egurraldia ez denez egonkorra, Benidorm aldera egiten dugu, han, egurraldi egonkor eta epela egiten du-eta.



Haimar Zubeldia usurbildarra Oñatin egon zen zapatuan.

JOSETXO ARANZABAL

2008ko egutegiak finkatuta dituzue?

Oraindik, ez. Azaro bukaera aldera, Derion kontzentrazioa egingo dugu, eta han esango digute hurrengo denboraldian bakotzaren egutegian ze lasterketa sartzen diren.

Zure egutegia oraindik jakin barik, ze asmo dituzu datoren urterako?

Duda barik, nire helburu nagusia Tourrerareko ondo ego-tea izango da. Hala, aurretik hitz egin dugunaren arabera, denboraldia indartsu hasiko dugu, ondoren atseden hartzeko. Halaber, Tourrari begira, indartsu egon nahi dugu. Frantziako proba oso berezia da, tropoelean gau-den txirrindulariendako eta erre-pidean dauden zaleendako. Azken urteotan, doping kontuarekin asko kakaztu bada ere, zalantza barik, xarma berezia du Tourrak.

**DENBORALDIAURREA
"Oporren ondorengo lehenengo entrenamenduak oso gogorrak izaten dira"**

BENIDORM

"Benidormen egiten duen eguraldi egonkor eta epelaren bila joango gara urtarrilean"

TOURRA

"Azkenaldian oso kakatzta dagoen arren, Frantziako Tourrak xarma berezia du"

Edozelan ere, denboraldiko helburu bakarra ez da Tourra izango. Taldeak ezin du denboraldi osoa proba bati begira eman; oso arriskutsua da. Hortaz, taldeak beste helburu batzuk ere aurreikusita ditu.

Edozelan ere, kontuan izan behar da txirrindularitzarik denboraldia oso luzea dela, otsailean hasi eta irailean bukatzen da-eta. Hortaz, hilabete guztietan, fisi-koki ondo egotea oso zaila da; fisi-koki, hainbat ziklo edukitzetan ditugu.

Gustura geratu zinen iaz egindako lanarekin?

Zapore onarekin bukatu nuen. Urteko lehenengo helburua Frantziako Tourra zen, eta gustura bukatu nuen lasterketa. Haren ondoren, irailean, lasaiago, Spainiako Vueltan parte hartu nuen, eta taldeak lan ona egin zuela uste dut. Hala, zaleak urte bukaerako probetan ematen

duzun itxurarekin geratzen dira; hortaz, oso pozik gaude.

Lehenengo urtez da Jon Odriozola Euskaltel taldeko zuendari. Talde barruan, aldaketarik nabaritu duzue?

Talde barruan, batez ere, lan egiteko modua aldatu da, eta talde lanari garrantzi handia ematen zaio orain. Jon zuzendari oso zorrotza da, lasterketa hasi aurretik gauzak oso garbi esaten dituena. Halaber, gustatu ez zaizkion gauzak ez ditu isilean gordetzen. Hortaz, taldeak barruan izan duen aldaketa zaleek ere antzemantutela uste dugu.

Euskaltel taldean, gure ibarreko bi txirrindulari daude, Markel Irizar eta Ivan Velasco. Nolakoak dira?

Markel oso hiztuna da. Txirrindulari moduan, oso profesionala dela erakutsi du; benetan maite du kirol hau. Gainera, lagun moduan, primerakoa da, beti laguntzeko gertu dagoen horietakoa.

Ivan Velasco guztiz kontrakoak da, oso isila da-eta. Lehenengo urtea egin du profesional mailan, eta zorte txarra izan du. Edozelan ere, balio duela erakutsi du, eta oso profesionala da.

Iban Mayoren positiboaren berri jaso zenuenean, nola erreakzionatu zenuen?

Oso gogorra izan zen. Ibanezin hitz egin nuen, eta hark esan zidan lan egingo zuela errugabea zela erakusteko, eta bigarren analisiak arrazoia eman dio.

Edozelan ere, arazoa da UCIk ez duela bigarren analisiaren emaitza onartzen, beste laborategi batean egin diotelako. Bada, UCIk berak jarritako legea da: kontrola egiten dutenean, bilagin hartzen dira, eta lehenak positiboa ematen duenean, bigarren erabiltzen da. Bada, Mayoren kasuan, UCIk ez du bigarren onartzen.

Amaitzeko, Haimar Zubeldia-ren etorkizuna laranja kolorekoa da?

Oraingo, 2008. urtea bukatu arteko kontratua daukat. Denboraldia bukatu ondoren jakingo dut nire etorkizuna zein koloreko den. Dagoeneko 30 urte ditut, eta, datorren urtean, ni izango naiz taldeko txirrindularirik zaharrena. Adinaren arabera, urte asko geratzen ez zaizkidaldu uste dut.



> MUSIKA

Zarzuelarako sarrerak gaurtik aurrera salgai daude Amaian > **26**

> BERTSOLARITZA

Gipuzkoako Bertso Txapelketako finalaurreko jokatu zen > **26**

> MUSIKA

UEK taldeak Eskoriatzan egin zuen diskoaren aurkezpena > **27**

> ANTZERKIA

'Galipotx' ikuskizun musikala egon zen Arrasaten zapatu arratsaldez > **27**

MUSIKA > BERGARAKO BANDA

Diskoa aurkeztu zuen Bergarako musika bandak

Bergarako musika bandaren urteurrena ospatzeko, diskoa eta DVDA grabatu dituzte, eta zapatuan izan zen aurkezpen kontzertua

Aroztegi aretoan, Filatelia Elkartearekin batera, erakusketa antolatu du Musika Bandak

MAIER URANGA > BERGARA

Bergarako musika bandak 175 urte betetzen ditu aurretan, eta, hori ospatzeko, zortzi abestiz osatutako diskoa eta DVDA kaleratu berri ditu. Zapatuan, Santa Zezilia eguna gertu dagoen aitzakia hartuta, pilotaleku, diskoen aurkezpen kontzertua egin zuten. Lau abesti jo zituzten guztira: Alfredo Gonzalez Chirlaque banako zuzendariak konposatutako 1832; bere aita Miguel Gonzalez Bastidaren *Ezpata Dantza* gerro; Ennio Morriconeren *I knew I loved you*, Alfredo Gonzalez Chirlaquek moldatuta; eta Francisco Cesariniren *Tom Sawyer* sui-tea, amaitzeko.

76 musikarik, Alfredo zuzendariak eta estandartea osatzen dute gaur egungo Bergarako musika banda. Guztiak elkarrekin grabatu dute zapta abestiz osatutako diskoa, bi egunetan. Esan beharra dago, hasieran, zortzi abesti grabatu behar zituztela, baina, hainbat arazo tarte-ko, azkenean, zazpikoan geratu da kaleratu duten diskoa. Angel Agiriano bombardinoak esan digun moduan, "oso gogorra izan da grabaketa, bi egunez guztiok batera... kontzentrazio handia behar da".

Kaleratu duten DVDA, berri, bi zatitan dago banatua: alde batetik, musika bandaren historia kontatzen da, eta, bestetik, gaur egungo kideak eta antolamendua azaltzen dira.

Kontzertua hasi aurretik, kalean ibili ziren bandakoak, hainbat abestirekin Bergarako kaleak alaituz. Zuzendaria urduri zebilen arren, oso ondo irten zitzaien ondoren pilotaleku egindako emanaldia. Erantzun ona izan zuen, gainera, bergarren aldetik, toki gutxi baitzuden libre kontzertuan.

175 URTE

Musika bandaren urteurrena ospatzeko, askotariko ekitaldiak egin dituzte. Diskoa eta DVDA grabatu eta aurkezpen kontzertuaz gain, bariku, hilaren 16an, hilabetez, Barrenkaleko Aroztegi aretoan erakusketa jarri du bandak, Filatelia Elkarteak lagunduta. Musikaz lotutako sei luak egongo dira ikusgai bertan, atzokoak eta gaurkoak, kolore eta tamaina guztiakoa.

Filatelia elkarteak sei luak jarri ditu, eta bandak partitura zaharrak edo aintzinako instrumentuak, besteak beste, gehitu dizkie haiei.

EGUNA, SANTA ZEZILI EGUNA

Musika ekitaldiak eguneko ibarrean

Azaroaren 22an, urtero moduan, Santa Zezili eguna ospatuko du musikari eta musikazale batek baino gehiagok. Debagoienean, hainbat musika ekitaldi daude antolatuta egun hori ospatzeko. Hala, Oñatin, azaroaren 24an, Ganbara Txiki eta Goikobalu Txikik kontzertua eskainiko dute, arratsaldeko zapta eta erdietan hasita, eta hurrengo egunean, hamabi eta erdietan, Oñatiako Bandak emango du kontzertua. Biak ala biak Santa Anan izango dira. Bergarako musika eskolakoek ere San Martin plazan ospatuko dute musikarien eguna, Santa Zezili egunez, arratsaldeko bost eta erdietan.



KONTZERTUA Alfredo Gonzalez Chirlaque, eskuman, bandaren kontzertua zuzentzen.

JOSETXO ARANZABAL



ERAKUSKETA Musikaren gaineko sei luak eta bestelako gauzak daude Aroztegi aretoan ikusgai.

JOSETXO ARANZABAL

Kantari

Bergaran



ARGAZKIAK: JOSETXO ARANZABAL

Bergaran agurtuko da 'Kantari'

MAIER URANGA > BERGARA

Kantari karaoke ikuskizunaren azken aurreko saioa jokatu zen Bergarako Jam aretoan, atzo, domeka. Bergara izan da herri aukeratua herriz herri ibili den ikuskizunari agur esateko. Aurrez, Arrasaten, Eskoriatzan eta Oñatin ibili dira umeak kantari.

Ume eta gaztxo mordoa, oraingo honetan ere, kantuau eta dantzan ibili direnak, ilusioz prestatutako koreografiak jende aurrean erakutsiz. Guztira, 8 eta 12 urte

bitarteko 170 haurrek parte hartu behar dute Bergarako bi saioetan; Bergarako 47 talde eta Antzuolako talde bat ere bai. Umeak, inoiz baino urduriago, baina, astero moduan, oso pozik. Gehienetan esanetan, dagoe-neko zain daude hurrengo *Kantari* noiz izango den.

Jam goraino bete zuten ikuskizuna ikustera gerturatuz ziren ume, gazte eta gurasoek; umeekin domeka arratsaldea pasatzeko modu aproposa. Oraingo honetan ere, abesti euskaldunak entzun genituen: Pirritx

eta Porrotx-en *Maite zaitut*, edo Hemendik At-en *Eskutitza*, esaterako.

AZKEN SAIOA

Hurrengo astean, hilaren 25ean, izango da *Kantari*-ren azken saioa. Amaia Txintxurreta oñatiarrak aurkezten duen karaoke ikuskizuna herriz herri grabatzen ibili da GOITB, eta, gero, hainbat saiotan banatuta ikus-teko aukera egongo da.



HONELA IKUSI ZUTEN KANTARI PARTE HARTU ZUTEN UMEEK



Iratzi, Nerea, Uxue, Gozane
Kantari-ko partaideak



Iratzi, Ibai, Iñaki eta Ane
Kantari-ko partaideak



Juda eta Txaima
Kantari-ko partaideak



Nerea, Iratzi eta Leire
Kantari-ko partaideak

"10 urte ditugu eta Bergarakoak gara. Aspaldi
hasi ginuen prestatzan Gozategi-ren *Narama*.
Beste abesti batzuk nahiago ditugu", esan
ziguten lau lagun horiek.

"Bergarakoak gara. Nahiko lasai gaude.
Pirritx eta Porrotxen *Maite Zaitut* abestu
behar dugu. Hurrengoan ere hartuko
genuke parte".

"Lagun asko eta gurasoak
etorri dira ikustera. Su Ta
Gar-en *Itxaropena* abestia
kantatuko dugu".

"Urduri gaude, ikustera etorri den jende
guztia ikusita. Hemendik At-en *Eskutitzta*
abestu behar dugu. Askotan zaigu
egokitu zaigun kanta".



PUNTUKA Jexux Mari Irazuk eta Jon Martinek puntukako ariketan jardun zuten elkarrekin.

JOSETXO ARANZABAL

BERTSOLARITZA > GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Jon Martinek lortu du finalerako txartela lehen finalerdian

Eskoriatzako Intxaurtxueta kiroldegian, 1.000 bertsozale inguru elkartu ziren zapatuan

Ainhoa Agirreazaldegi ez zuen aldarte onik izan, eta urduri jardun zuen saioan barrena

IRATI AGIRREAZALDEGI > ESKORIATZA
Giroa, hotz, kanpoan, eta bero bila, Intxaurtxueta kiroldegira, 1.000 bertsozale inguru batu ziren. Finalerdiak zirenez, bero espero zen giroa, baina epel antzean joan zen saioa. Unai Agirre, Jexux Mari Irazu, Uxue Alberdi, Beñat Gaztelumendi, Ainhoa Agirreazaldegi eta Jon Martin Egoitz Aizpuru gai jartzalearen esanetara bertsotan jarduteko gertu ziren.

Agurretan, askotariko kontuak eta aipamenak. Irazuk, esaterako, bertso eskolen aitzindari izan ziren ibarreko Xanti Iparragirre, Patxi Goikolea eta Juanito Saizar izan zituen gogoa. Eztarriko minez eta kiboak egiteko arriskuarekin zetorrela esan zuen Martinek, eta oilarzoko garaia ere bazuela. Kiborik egin gabe, baina, oilar eta oilan da arteko borrokan, bera izan zen amaineran nagusi.

OFIZIOKA

Zortziko handian ekin zioten bertsolariek lan puntuagarriari. Zuzen, fin jardun zuten, eta ale politik entzun zen. Alaba *ballet*-eko ikasketak egitera kanpora doan gurasoaren paperean, Ira-

zuk ideia polita bota zuen, esanez: "Igual gerorrekin beharko dugu hanka puntetan ibili".

Zortziko txikian, umorez hasi ziren Unai Agirre eta Uxue Alberdi. Elkarrekin bizi eta, Uxue begetarianoa izanda, Unaik bide bera jarraitu duela esan zien gai-jartzaleak. Bizi hasi zen Unai, eta haragi, gorputz eta berde kontuekin hitz joko politak egin zituzten.

Irazuk eta Agirreazaldegiak obrak langileen paperetik jardun zuten; lan-astea amaituta, zikin-zikin, Jexux Mari, eta garbi, Ainhoa. Ateraldi politik izan bazeen ere, ez zen aparteko jarduna izan. Gaztelumendi Martinen gela margotzen ziharduen manganaria izan zen, eta Martin, koloreekin konforme ez zegoena. Bizzkor eta bizi egin zuten bertsotan, argi-ilunak eta koloreak baliatuz.

PUNTUKA

Ariketa berria zen txapelketan puntukakoa, eta sumatu zen hori. Ainhoak eta Uxuek ez zuten erosoa jardun. Beñatek eta Unaik, futbolarien paperean, puntu zorrotz batzuk bota zituzten; baita gai-jartzaleak patin ikastaroan ipini zituen Jonek eta Jexux Marik ere.

Seiko motzekoa ere fase honetan sartu duten ariketa da. Unai Agirrek eta Ainhoa Agirreazaldegi txukun eta fin osatu zuten lehen bertso aldia. 18na urteko bi gazte ziren, prostituta Ainhoa eta bezeroa Unai. Unaik Ainhoari bota zion: "Zuk sakelean duzu zuloa ta nik bihotzean"; eta modu txukunean erantzun zion Ainhoak: "Nire hoztasunak zure zulorrik ez du estaliko". Ainhoa Agirreazaldegi ere ariketa horretan jardun zuen gusturen: "Nire barrutik gehien kantatu ahal izan dudan saioa izan da".

Irazuk eta Gaztelumendik paseoan egin zuten topo; aitaren gurpildun aulkiairekin, bata, eta ume karroarekin, bestea. Bertsoaldi samurra izan zen.

Martinek eta Alberdik harremana amaitu eta, parrandan topo egin ostean, elkarrekin oheratu ziren ahotik jardun zuten. Saioak kutsu bihozbera izan zuen. Esaterako, Jonek kantatu zuenean: "Maite zaitut bat esan zaidazu, nahiz gezurra izan".

KARTZELATIK EPAITEGIRA

Hori zuten kartzelako gaia: "Epaitegiko gela utzi berri duzu". Epaituaren paperetik kantatu zuten denek; euskal preso politikoen azaletik, gehienek. Ideia eta arrazoi politik entzun zen kartzelan, baina gaia ez zuten behar bezala aprobetxatzen jakin, eta lan bete-beterik ez zen entzun; kartzelan, txukunen, beharbada, Jon Martinek jardun zuen.

Lanak amaitu eta, puntuazioaren zain zeudela, agurra bota zuten denek; aipatzekoak, Ainhoak eta Uxuek gurasoei, lehenak, eta familiako eta Hamaika Beruteko kideei, bigarrenak, bota zizkieten bertso hunkigarriak.

Jon Martin izan zen lehena, eta Illunbeko finalerako txartela eskuratu zuen, hortaz; gainontzeako horrela sailkatu ziren: Jexux Mari Irazu (496 puntu); Unai Agirre (492,5 puntu); Beñat Gaztelumendi (488,5 puntu); Uxue Alberdi (484 puntu) eta Ainhoa Agirreazaldegi (443,5 puntu).

Sao ostean, Ainhoa Agirreazaldegi elgetarrak aitortu zigun ez zuela aldarte onik izan eta urduri sumatu zuela bere burua. Hala ere, txapelketan barrena egindako lanarekin gustura dagoela ere esan zigun: "Gainera, hemendik bi urtera izango da Euskal Herriko Txapelketa, eta, bi urte horietan, indartsuago lan egiteko gogoapiztuko didala uste dut; eta bertso eskolan eta, ahal dela, saioetan gozatu eta burua bertsoetan jarri nahi dut".

Jon Martin pozik zen saio ostean: "Saioan, lasaitasun arraro bat izan dut, eta horrek ez zidan uzten ohi bezain azkar pentsatzen eta seguru kantatzen; baina bertsoak ondo joan dira. Hortaz, bi impresio nituen, bertsoei zegokiena eta gorputzaldiaarena; badirudi bertsoena izan dela balekoa". Finalean izango da Martin, eta, esan zigunez, "oraindik beste eskailera bat igotzeko aukera badago".

> MUSIKA

Zaruelarako sarrerak gaur ipiniko dituzte salgai Amaian

Azaroaren 24an, 25ean, 30ean eta abenduaren 1ean izango da Izaskun Murgia elkartea lirikoaren zarzuela. Aurten, *El duo de la africana* lana eskainiko dute. Bazkideen-dako sarrerak saltzen hasiak dira Arrasate Musikalen, 12 euroren truke. Gainontzekoek 15 euroren truke izango dituzte sarrerak erosteko Amaia antzokian, azaroaren 19tik aurrera: azaroaren 19an bertan, 17:00etik 20:00etara, eta abenduaren 1era bitarteko gainontzeko egunetan, 18:00etik 20:00etara. Bestalde, azaroaren 21ean, Euskal Telebistako *Postdata* saioan, Arrasateko zarzuelaren gaineko erreportajea ikusteko aukera izango da.

> BERTSOLARITZA

Manex Agirre Bertxoko sariketako finalean izango da

Etxabarri Ibiñako herriko txokoan jokatu zen, zapatu gaeuan, Bertxoko sariketako bigarren kanporaketa. 30 lagun inguru izan ziren afiritan, eta, giro onean, Manex Agirre, Lander Ibarluzea, Ander Sorozabal, Hodei Lopez de Arkaute, Jagoba Apaolaiza eta Maundi Muruak jardun zuten bertsotan gero. Agurrik kantu doinu ezagunetan abestu zituzten, eta Manex Agirrek, esaterako, Loquilloren kanta bat aukeratu zuen. Kartzelan ere, Olentzeroren doinuarekin, *ilusioa* hitzari bertso politak bota zizkieten. Manex Agirre aramaioarra Gasteizen, abenduaren 1ean, jokatuko den finalerako sailkatu zen, Maundi Muruarekin batera.

> ANTZERKIA

Arizmendikoak Azpeitiko Antzerki Topaketetan izan dira

Arizmendiko antzerki taldeak, *Bertso-raperoak* antzezlanean, Azpeitiko Antzerki Topaketetan hartu zuen parte egubakoitzean. Izarraitz pilotaleku egin zuten emanaldia, eta 80 lagun inguru gerturatu ziren. Antzerki taldekoak gustura geratu ziren emanaldia-rekin. Aparteko helbururik ez zuten Antzerki Topaketetarako, baina euren lana ikusleek epaitu zuten, eta talde hasiberrien lehiaketan hartu zuten parte. Oraingo, antzezlan horrekin, ez daukate beste emanaldirik aurreikusita Arizmendikoek. Hortaz, antzerki teknikak lantzen jarraituko dute hurrengo lana prestazten hasi bitartean.

MUSIKA > ROCK MELODIKOA

UEK, uhinak eta musikaren kalitatea nagusi disko berrian

Eskoriatzako Inkernu tabernan, UEK taldearen kontzertua egon zen joan den barikuan, Aitzorrotz elkartearen eskutik

MAIER URANGA > ESKORIATZA
Jendez gainezka egon zen egubakoitzean, 22:30ean, Eskoriatzako Inkernu taberna, UEK taldearen kontzertua ikusteko.

Kalean sekulako hotza eginen zuen arren, ez zen oztopo izan bertara hurbildu ziren guztientzat. Lan berria aurkezteaz gain, aurreko diskoetako abesti ezagun asko ere entzuteko beta egon zen; emanaldi luzea egin zuten, eta jendea oso gustura

irten zen kontzertutik, entzun eta ikusi zuenarekin. Eroso egoten zen Inkernun, baina, batzuetan, taldeari txiki geratzen ote zitzaion idea ere izan nuen.

DISKO BERRIA

Labetik atera berri du UEK taldeak *Uhinak* disko berria. Oraingo honetan ere, Keu, gitarran; Mikel, baxuan; eta Jon Gurrutxaga, bateria lanetan, izango ditugu. Azken lana, zuzenean eta hirurak elkarrekin joz, grabatu dute, Andoaingo Garate estudioetan. 12 abestiz osatua eta idea positiboz beteta, istorio txikiak kontatzen dizkigute, non protagonistak sentimenduak edo emozioak izango diren.

Oraingoan ere, Gaztelupeko Hotsak diskoetxearen eskutik izan dute UEKekoek diskoa grabatzeko aukera.



UEK Mikel, Jon eta Keu, Eskoriatzako kontzertuan.

JOSETXO ARANZABAL

Keu, Jon eta Mikel > UEK taldeko partaideak

"Hasieran proiektu zena orain taldea da"

M.U. > ESKORIATZA
Egiten duten musikaz gainera, euren konpainia eta izaeraatseginaz gozatzeko aukeera ere izan genuen Inkernu tabernan.

Zergatik *Uhinak* titulu?

Aire berria nahi genion eman; Mexikon-eta, asko erabil-

tzen dute ¿Que onda?; bada, guk uhin edo onda ona eduki gura dugu.

Nolako da disko hau?

Disko freskoa. Hirurok batera grabatzeko konpaktutasuna ematen dio konpaktuari. Melodikoa eta indartsua, matizasko-rekin.

Hirurok batera grabatzea zer moduz joan da?

Oso ondo; ez da zaila izan, onenak gare-lako... Ez, ez. Erronka bat izan da guretzat, nahi genuen soinua ateratzeko balio izan du. Ez da erraza izan, prestatuago joan behar duzu, baina amaitzean izugarria da.



GORKA AKIZU

ANTZERKIA > MUSIKALA

Arrasaten, 'Galipotx' ikuskizun musikala egon zen zapatuan

Golden Apple Quartet eta Kanpingags-ek ekoitztutako adin guztientzako emanaldia egin zuten Amaia Antzokian

M.U. > ARRASATE
Zapatu arratsaldean, Patxi Barcoren zuzendaritzapean, *Galipotx* ikuskizun musikala antzeztu zuten Arrasateko Amaia antzokian. Haur, gazte zein nagusiagoak izan ziren bertan, ikuslego guztientzako egina baitago musikala.

Txotxngiloen magiaz, aktoreen antzezelan bikainaz eta musikarekin jolasten da obra guztian zehar, eta aktoreek beraiek abeslari lanak ere egin zitzutzen, primerann gainera. Antzokiko bero-tasunean, kanpoko hotzetzik babestuta, antzerkian sartuta zegoen ikuslegoa. Koruak egiten dituzten lau bele txotxngiloek gerturatutako helduei, musika-lean zehar, keinu pilo bat egin zizkieten. Lau bele hauek Golden Apple Quartet laukotearen antzhandia zuten, beraiek jartzen diz-



'GALIPOTX' Antzezlaneko une bat.

JOSETXO ARANZABAL

kiete-eta ahotsak animali hauel. Ipuin ironiko eta dibertigarria.

ESPERIENTZIADUN LAN TALDEA

Taula gainean, lau aktore baino ikusten ez ditugun arren, lan talde handia dauka *Galipotx* ikuskizunak atzean. Golden Apple Quartet musikariekin eta Kanpin-

gags antzerki taldeak ekoitztutako lana da. Golden Apple Quartet-eko partaide Loyola Garmendiak zuzendaritza musicalaren lana hartzeaz gain, Patxi Barco errealizadore donostiararekin batera, gidoia ere idatzi du, eta azken hori obrako zuzendaria ere bada.



IRIZAR Juan Carlos Irizar, iaz, Durangoko Azokan.

ARTXIBOA

MUSIKA > DISKO

Juan Carlos Irizarrek disko berria aurkeztu berri du

Egubakoitzean egindako prentsurrekoan aurkeztu zuen 'Itsasotik Mendira' Donostian

M.U. > ARRASATE

Barikuhan, hilak 16, egin zuen Juan Carlos Irizar Oñatiako musikariak *Itsasotik Mendira* disko berriaren aurkezpena, Donostiako Koldo Mitxelenako areto nagusian. Disko honekin amaitu du musikariak orain dela hiru urte hasi zuen zikloa. *Mendiak* izan zen lehenengo lana; ondoren, *Menditik Itsasora* etorri zen; eta iaz, *Itsasora* argitaratu zuen

OMENDU UGARI

Onatiarrak bere azken berriena itsaso eta mendiarekin zerikusia duten pertsona edo era-kundeei eskaini die_ Alberto Iñurrategi, Josu Bereziartua, Felix Iñurrategi Fundazioa, Matxitakon izandako gudako marinelak edo Gautena elkartea besteak beste. Diskoaren aurkezpenera denek joaterik izan ez zuten arren, Irizarrek alboan izan zituen gehienak.

gazte zerbitzuak

BEKAK

Ikerketa. Eusko Jaurlaritza eta Kultura Saila. Euskadiko gazteen egoerari buruzko bi ikerketa-beka, gazteria-gaietan ikerketa sustatzeko eta EAEren ahalmen zientifikoa areagoatzeko helburuarekin. Epea: abenduaren 14a.

Empresa. Mondragon Unibertsitatea. Empresa-proiektuetan zuzendari izateko interesa duten ingenieri edo lizenziadunendako 15 beka. Epea: azaroaren 30a.

EKINTZAK

Bigarren eskuko azoka. Vasco de Camping Elkartea. Mendiko eta eski-kotxan materialen bigarren eskuko azoka. Saldu nahi den materiala hilaren 21 eta 23an jasoko da, 19:00-20:30, eta azoka 2007ko azaroaren 26tik 30era izango da, 18:00-20:30.

IKASTAROAK

Astialdiko zuzendaria. Hezkide Eskola. Haur eta Gazteen astialdiko zuzendaria izateko ikastaroa. Epea: 2008ko otsailaren 1a.

LEHIAKETAK

Argazkilatza. Hernaniko Udal. Zainketa eta etxearen lanak egiten dituzten gizonen irudiak ezagutarazteko argazki lehiaketa. Epea: azaroaren 21a.

LANA

Gizarte Ongizateko zuzendaria. Irungo Udal. Goi-zuzendaritzako kontratuaren bidez, Irungo Udaleko Gizarte Ongizate Arloko Zuzendari kargua betetzeko deialdi publikoa. Epea: azaroaren 28a.

Ingeniari teknikoa. Erreneriako Udal. Ingeniari Tekniko bat kontratzeko lehiaketa-oposizio deialdia Erreneriako Udalean. Epea: azaroaren 29a.

Itzultzalea. Bergarako Udal. Euskara Departamenturako, aldi baterako itzultzalea kontratatzeara eta lanpoltsa osatzeko deialdia. Epea: azaroaren 20a.



ARRASATEKO GAZTE BULEOGA:
Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65
gaztebulleoga@arrasate-mondragon.net

BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:
Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

ÖÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazio@oinati.net

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aretxabaleta. 60 m2. Bi gela, egongela, bainugela, sukalde-jangela, desperta, berogailua. Berrituta eta jantzia. Oinezkoendako aldean. 98.300 euro. 679 80 18 80.

Arrasate. Etxebizitza salgai, Otalora 2, azken solairua, ikuspegi zoragarria, 3 logela, 2 komun, bizitza sartzeko moduan. 675 71 37 27.

Arrasate. Duplexa salgai Otalora kalean, Arrasate erdialdean. Egongela, bi logela, sukaldea, bi komuneta 20 m2-koterra. Etxe nahiko berria (12 urte). 696 79 43 89.

Arrasate. Etxebizitza salgai, San Andresen, 57 m2. Guztiz berria. Bi logela, egongela, bainugela eta sukaldea. Kanpalde-rra begira. Igogailua eta sotoa. 620 15 12.

Arrasate. Grupo San Juanen etxeak salgai. Eguzkitsua, 60 m2. Igogailua, garbana eta sotoa. 619 25 46 69.

Arrasate. Malvinetan. Hiru logela, bainugela, egongela, sukaldea eta ganbara handia. Bodeg-a eta garajea. Ikupegi ederrak eta eguzkitsua. 330.000 euro. 685 70 78 03.

Arrasate. Zerrajera kalean, 110 metro koadro. Hego-mendebalde-rra begira. 945 15 40 22.

Bergara. Aranerrekan etxebizi-tza salgai. 75 m2, 3 gela, egongela, 2 bainugela, sukaldea, terraza, ganbara eta berokun-za centrala. 665 71 48 30.

Bergara. Herri erdian, 70 m2, bi logela, berogailua eta igogailua. 629 15 79 29.

Bergara. Etxea saltzen dut, Simon Arrieta plazan. Hiru logela, egongela, sukaldea, komuna eta bi balkoi ditu. Dena kanpora begira. 299.900 euro. 635 73 87 55.

Bergara. Ganbararekin duplexa egindako etxebizitza, berriuta salgai. Berogailurekin eta guzti-jantzia. 50 m2, 186.000 euro. negoziagarria. 656 75 12 16.

Elgeta. Etxebizitza salgai, bigarren solarria. Igogailua dauka, hiru gela, sukaldea, komuna eta ganbara. Aukera onean hilabete honetan. 137.032 euro (22.000.800 pta). 645 71 76 25.

Gasteiz. Txagorritxu inguruaren etxebizitza salgai. Bi logela, egongela-jangela, sukaldea eta bainugela. Berogailua eta igogailua. Bista onak. 630 577 09 99.

Ofiñati. 120 m2-ko duplexa. Herri erdian. Bitezzerasarteko moduan. Argitsua eta material ederrekin egina. Hiru logela, bi komun, sukaldea, egongela eta estudioa. 420.000 euro. 676 39 36 93.

Ofiñati. Etxebizitza salgai San Lorentzo auzoan. Jantzia eta bista politikoa. Hiru gela, bi bainugela, egongela, estudioa, bi terraza, sukaldea eta garaje itxia. 652 74 08 30.

Ofiñati. Kale zaharrean 100 m2-ko etxeak salgai. Hiru logela, ganbara terrazarekin. 657 79 43 29.

Ofiñati. San Lorentzon, eguzkitsua. Hiru gela, bi bainugela, egongela, sukaldea eta ganbara.

Azaroaren 19a:

151. zozketa

ASTELEHENeko GOIENKARIA

Harpidedunen

txokoa

Saridunak

Danbakako bi kamiseta
(harpidedun bakoitzari bat emango zaio)
- Mikel Lijo Perez
(Bergara)
- Iñaki Olaortua Deskarga
(Elgeta)

Sariak jasotzeko epea: 15 egun

152. zozketako saria

XABIER ARREGIREN
'HERRIA, HIRIA, NAZIOA'
(Pamiela argitaletxea)
2 liburu



IRAGARKI SAILKATUAK

Egubakoitz eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarri ditugu.

943 25 05 01

sailkatuak@goienea.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITU. GAINERAKOAK, 18 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO. PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENeko GOIENKARIAN BIETAN, ARGITARATUZ GERO 25 EURO (+BEZ).

GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

704. BESTELAKOAK

Debagoiena. Txakurakedo animaliak zaintzeko gertu nago. Animalien tratuaren eskarmentu daukat. Deitu telefono honetara: 670 43 16 52.

8/ DENETARIK

801. SALDU

"Lur" entziklopedia. 1993ko "Lur Hiztegi Entziklopedia" salgai. Prezia adostu egindako daiteke. Deitu telefono honetara: 655 74 41 60.

Baserritar blusa. 7-9 urteko bitarteko mutiko batentzako. 943 79 41 31.

Biola berri-berria salgai. Yamaha VV7 (15). Deitu arratsaldeko edo gauez. Deitu telefono honetara: 686 54 28 98.

EGURREZKO sehaska bat eta bidaia joateko beste bat saltzten ditut. Umeendako motxila ere salgai. Deitu telefono honetara: 635 73 27 84.

Gitara elektrikoa salgai. B.C. Rich. Warlock modeloa. Amplifikatzailea ere salgai. Marshall. Berriak dira. Deitu telefono honetara: 679 21 35 07.

Jaioberriendako sehaska bat salgai. 2004koia. 150 euro. 679 25 80 12.

Mahaia Egongelako mahai bat salgai. 90x90 neurrikoa. Gereziondo koloreko dauka eta kristalezko da. Berria. 99 euro. 653 72 22 54.

Teleskopioa salgai. Astrolan markakoa. 4020k potentzia. Deitu telefono honetara: 694 79 44 48.

Ktm 125sx Crosera salgai, egoera oinean. Konpromiso barik proba daiteke. 605 75 54 57 edo 943 76 38 87.

Nissan Terrano (II), 55.000 km. Oso egoera oinean. Beti garajearen gordinet. 652 72 15 56.

Renault Megane Coupe salgai. 1997koia. 161.000 kilometro. Oso egoera oinean. 2.500 euro. 665 71 48 30.

Seat Toledo turbodiesela salgai. Prezia ona. Telefona: 639 96 29 51.

Volkswagen California salgai, 1996koia. 189.000 km. Estrak: aire girotua, estalkia, lau bikieta eramateko, CDA lau boz-golairarekin. Ez da TDI. 14.000 euro. 636 28 00 07.

Bergara. Azaroaren 1ean, arratsaldean, DS kontsola galdu nuen poligonoko ziburueta bidean. Eskertuko da. Deitu telefono honetara: 659 77 01 71.

Zilarrezko eskumuturreko galdu nuen azaroenan 9an Arrasaten, Urrapea eta Arbolapea artean, "Arritz" eta "Maria del Carmen" izenek grabatuta dauzka. Balio sentimentalak. 687 36 02 58.

808. BESTELAKOAK

Ugarrixo elkartea baxkideak behar bat du Bergaran. Hileko kuota bakarrak ordaindu behar da. Deitu telefono honetara: 609 59 19 23.

Harpidedun egiteko: 902 36 38 51
09:00etik 18:00etara.

Eskoriatzan DBHko 4. mailako eskola partikularrak emateko per-sona bat behar da. 635 74 34 55.

Harpidetza kuota:
18 euro
2007 bukaera arte.

5/ IRAKASKUNTZA

501. JASO

Bergara. Elektroteknika eskolak jasoko nituzke. Deitu 19:00etik aurrera. 626 32 04 72.

Bergara. First titulia duen irakaslea behar dut astean hiru bider ingeles eskolak eman diezazkidan. 615 79 41 02

Bergara. Sei urteko neskatala batí eskoala partikularrak etxean emateko norbait behar dut; egunean ordu bat. 658 70 73 17

502. EMAN

Aretxabaleta. Ingelerako esko-ak emateko ditut. 943 79 03 83.

Eskoriatzan DBHko 4. mailako eskola partikularrak emateko per-sona bat behar da. 635 74 34 55.

4/ LANA

402. ESKAERAK

Arrasate. Emakumea gertu egunean bi orduz garbiketak egiteko. Rosi. 943 77 16 01.

Arrasate. Emakumea prest dago nagusiak gauze zaintzeko. Baile garbiketa lanak egiteko taberna edota elkarretan. Esperientziaduna. 696 11 01 94 edo 943 77 16 73.

Arrasate. Lan bilakatzen muti-la naiz: zerbitzari, iturgin lagun-

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Debagoiena. Bi urteko zaldia-biarrak salgai, kartarekin. 6476 02 81.

Debagoiena. Behar bat salgai, gainean ibiltzeko balio duena. Deitu 616 00 34 29 telefono zen-bikira.

Euskal artzain txakurak salgai, 15 astekoak, iletsuak. Arrazadun, artzaintzarako edologun egiteko ezin hobeak. Telefona: 605 70 04 75.

Harpidedun ez bazara...

Zorionak irabazleo!
Gaur, azaroaren 19, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!
Asteleheneo Goienkaria-ko harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!

Harpidedun egiteko:
902 36 38 51
09:00etik 18:00etara.

Harpidetza kuota:
18 euro
2007 bukaera arte.

Goienkaria
asteleheneo

astea GOITBn

Astelehena, 19



> Realeko azken berrien gaineko iritzia

21:15

Xabier Urtzelai kazetariak Realeko azken berrien gaineko iritzia jasoko ditu. Gainera, gure kirol taldeen emaitzak ere landuko ditu.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bividunak: Calimero.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Erreportajea-Ttipi TTapa.
14:15 Elte beroa.
14:45 Berriak.
15:15 Ilunpean
15:45 Gaurkoak.
15:47 Berriare.
16:15 Animalia.
16:45 Berriak.
17:15 Calimero.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Hitz bitan.
18:15 Ikuisten.
18:45 Berriak.
19:15 2x2.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bividunak: Calimero.
20:45 Berriak.
21:15 Harmaillatik.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Erreportajea.
22:15 Kiolari.
22:45 Berriak.
23:15 Harmaillatik.
23:45 Gaurkoak.
23:30 Erreportajea.
00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 20



> Julien Iriondoren eskutik, 'Berbaire' saioa, gauaean

21:47

Hainbat gai lan- duko dituzte Ber- bairesaioan. Julian Iriondo kazetari oñatiarrak gidatu- takoa saioa da; aktualitateko gaiez jarduten dute.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bividunak: Horry.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Erreportajea.
14:15 Harmaillatik.
14:45 Berriak.
15:15 2x2.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Kiolari.
16:15 Elte beroa.
16:45 Berriak.
17:15 Horry.
17:45 Gaurkoak.
17:47 28 Klipa.
18:15 Musikantoi.
18:45 Berriak.
19:15 Harmaillatik.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bividunak: Horry.
20:45 Berriak.
21:15 Teknopolis.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Berriare.
22:15 Animalia.
22:45 Berriak.
23:15 Ikuismira.
23:45 Gaurkoak.
23:30 Erreportajea.
00:15 Emisio amaiera

Eguaztena, 21



> Bergarako Dantza Suelto Txapelketa

21:47

Irailaren 21ean Bergarako Udal Pilotalekuaren joka- tutako txapelketa ikusgai GOITBn. Usoa Agirre kazetariak aurkeztutako saioa izango da.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bividunak: Calimero.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Erreportajea.
14:15 Harmaillatik.
14:45 Berriak.
15:15 2x2.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Kiolari.
16:15 Elte beroa.
16:45 Berriak.
17:15 Horry.
17:45 Gaurkoak.
17:47 2x2.
18:15 Harmaillatik.
18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bividunak: Horry.
19:45 Berriak.
20:15 Zaharrak berri.
20:45 Berriak.
21:15 Bertsolarita-Gipuzko- ako txapelketa.
21:45 Berriak.
21:47 Dantza suelto txapel- keta.

Eguena, 22



> Gipuzkoako Bertso Txapelketa ikusgai

15:47

Zapatauan Esko- riatzan jokatu zen Gipuzkoako Bertso Txapelketako saioa eskainiko dute GOITBn. Finaler- dia jokatu zuten, hain zuen ere.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Zaharrak berri.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Marrazki bividunak.
14:15 Dantza suelto txapel- keta.
14:45 Berriak.
15:15 Berriare.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Animalia.
16:15 Teknopolis.
16:45 Berriak.
17:15 Calimero.
17:45 Gaurkoak.
17:47 2x2.
18:15 Harmaillatik.
18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bividunak: Horry.
19:45 Berriak.
20:15 Zaharrak berri.
20:45 Berriak.
21:15 Bertsolarita-Gipuzko- ako txapelketa.
21:45 Berriak.
21:47 Dantza suelto txapel- keta.

Egubakoitza, 23



> Asier Serrano poeta, 'Ilunpean' saioan

22:15

Iker Barandian kazetariak aurkeztutako *Ilunpean* saioan, gaur, Asier Serrano poeta eta musikari eibartarra izango da goni- bidatua.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bividunak: Calimero.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Ur eta Iur.
14:15 Animalia.
14:45 Albiste aurrerapena.
15:15 Berriare.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Elte beroa.
16:15 Musikantoi.
16:45 Albisteak.
17:15 Calimero.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Bertsolarita-Gipuzko- ako txapelketa..
18:15 Dantza suelto txapel- keta.
18:45 Albisteak.
19:15 Ikuismira.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bividunak: Horry.
20:45 Berriak.
21:15 Erreportajea-GoITB.
21:45 Berriak.
20:15 Marrazki bividunak: Horry.
20:45 Berriak.
21:15 Bertsolarita-Gipuzko- ako txapelketa.
21:45 Berriak.
21:47 Berriare.
22:15 Ur eta Iur.
22:45 Berriak.
23:15 Teknopolis.
23:45 Gaurkoak.
23:30 Jazmina.
00:15 Emisio amaiera

arrasate irratia

FM 107.7

> Emakumeen kontrako indarkeriaz jardungo dute 10:00

Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Nazioarteko eguna gainean dugun hone- tan, Arrasate Irratiak gai hori landuko du asteon. Gainera, Santa Zezili eguna dela- eta, musikariekin ere egingo dute hitzordua.



Afrika Baeta Kazetaria

"Aurkezle on batek naturaltasunez eman behar du informazioa"

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA
Zapatu eta domeketan ikusten dugu Afrika Baeta *Teleberri*-ko aurkezle lanetan. Izatez, Bartzelonakoada Baeta, baina, kazetaritza ikasketak egitera, Iruñera etorri zen. Ikasketak bukatu ondoren, praktikak egiten ibili zen, eta bost urte eman zituen Pamplona Telebistan. Gero, ETBko casting batera aurkeztu zen, eta 2.000 pertsonaren artean aukeratu zuten Baeta *Teleberri*-ko aurkezle izateko.

Nola gogoratzen dituzu *Teleberri*-ko lehenengo egunak? Gogorra egin zitzazun aurkezle lanetan hastea?

Aurretik, ibili nintzen aurkezle lanetan; hortaz, *Teleberri*-koa ez zen izan lehenengo esperientzia. Hori bai; egunero kotasunean, ezberdintasun handiak zeuden: herri telebista batean, denetarik egin behar duzu, eta ETBn, berriz, lan talde handi baten babesia daukat.

Orain, lehenengo urte haietako bideoak ikusten ditudanean, akats asko ikusten ditut.

Zure ustez, zer behar du aurkezle batek sinesgarria izateko?

Aurkezleak beharrezko du esaten dabilenari buruz informatuta egotea; informazioa menderatzen duela nabaritu behar da. Horretarako, ezinbestekoa da albisteak egin dituzten kazetariekin berba egitea. Bestetik, berriak naturaltasun osoz kontatu behar ditu aurkezleak; hau da, lagun batikontatzen ibiliko balitz bezala egin behar du.

Gogorra da aste bukaeretan lan egitea?

Ez, niri ez zait batere gogorra egiten. Azken zapi urteetan, aste bukaerako *Teleberri*-n nabil; nire bizitza pertsonalarekin, ondo uztartzen dut ordutegi hau. Gainera, beste gauza batzuk egiteko aukera ematen du lan honek: irratian ere banabil, unibertsitatean klaseak ematen ditut, eta komunikazio enpresa txiki bat sortu berri dut.

Informatiboak ez diren beste zer egitea gustatuko litzainzuke?

Informatiboak eta magazina uztartzen duen programa bat egitea gustatuko litzaidake, TVE egiten den *España Directo* bezalakoa.

asteko hitzorduak

Hitzaldia



BERGARA

> Zinema eta historia batu dituen zikloko azken hitzaldia, etzi

La difícil convivencia de identidades encontradas: los Balcanes izango da Bergarako agiritegiak antolatutako zikloko azken hitzaldia. Juan Madariaga historia irakasleak egingo du, eta udaletxeen izango da, 18:30ean.

Musika



BERGARA

> Txapa Irratiaren eskutik, punk-rock kontzertua gaztetxeen, egueñearen

Enemy Alliance suediarrek eta Adrenalized donostiarrek egingo dute kontzertua, hilaren 22an, egueñearen, Bergarako gaztetxeen. Txapa Irratiak eskainitako kontzertua izango da; iluntzeko 21:00etan hasiko da.

Hitzaldia



ARRASATE

> Julio Ibarra eta Iñaki Eizmendik euskaren gainean egingo dute berba

No sabemos euskera... ¿cómo podemos ayudar a nuestras hijas e hijos? delako hitzaldia egingo dute Ibarra eta Eizmendik San Andresko parrokiako lokalean, etzi, eguztiena, 19:00etan. AEDk antolatu du berbaldia.

kuxkuxeroa



Arantzazu Ezkibel

Bertsotan
dukearen
boden

Oñatin azken egunotan bolo-bolo dabilen txu-txu-mutxua da **Albako dukesaren** seme zaharrena, **Huescar-ko dukea**, eta **Alicia Koplowitz** Oñatin ezkondu behar direla. Baino, dirudinez, *top secret* da albistea; izan ere, ezkongaietakoak ez dute gura prentsa arrosa hortaz enteratzea. Ba oñatiarrak enteratu bagara...

Plazan dagoen Lazarraga jauregian ezkonduko omen dira; izan ere, jauregi hori Albako dukesaren koinatu batena da. Hortaz, pamelak edo peinetak erosten hasi

**"Atzeko Kalean bizi
direnek balkoa
alokatu diezaiekete
prentsa arrosako
kazetariei"**

beharko dugu. Gainera, Atzeko Kalean bizi direnek negozioa ere egin dezakete: balkoiak alokatu diezaiekete prentsa arrosako kazetariei...

Egia izango ote den? Batek daki! Baino, txu-txu-mutxua dela eta ez dela, barre, behintzat, egin dugu.

Aristokrazia kontuak alde batera utzi eta herriko kontuetan sartuko gara. Eskoriatzan jokatu zen bertso txapelketako kanporaketan, kantuan ibili ez ziren hainbat bertsolari joan zen Intxaurretxueta: **Lazkano, Sarasua eta Mendiluze**, esate baterako. Sarasuak, gainera, **Irazuren** agur bertsoan oholtzara igo eta bertsoa botatzeko gondapena jaso zuen. Baino Aretxabaletakoa ez zen igo. Publiko artean, entzuten, gusiturago zegoen.



Kinto bazkaria. Azken urteotako ohitura jarraituz, 1980an jaiotako bergararrek kinto bazkaria egin zuten zapatuan. 47 lagun elkartu ziren bazkaritarako eta, lagun giroan jan eta edanean zein berriketan gustura egon ostea, kanturako aukerarik ere ez zen falta izan; karaokea ipini zuten, eta batzuk animatu ziren kantura. Lagunarteko parranda herrian bertan jarraitu eta izan zen jaia goizaldera arte luzatu zuenik ere.



Arrikrutzera irteera. Bergarako Berriketan eta Arrasateko Zahar Berri egitasmoetako 24 lagun Arrikrutzten izan ziren zapatuan. Bideoa ikusi eta gero, kobazuloan bisita gidatua egin zuten. Salda beroa hartu zuten Arantzazun, eta, eguraldia lagun, irteera amaitzeko, Arantzazu errekok eskaintzen duen ur jarioa ikusteko aukera izan zuten. Bestalde, abenduaren 14an, Zahar Berrikoek ikasturte hasierako afaria egingo dute.

Gazte Eguna. Zapatuan, Arrasateko Gazte Alternatiboen Kofradiak antolatuta, Gazte Eguna izan zen Arrasaten. Pilota txapelketa izan zen goizean, Iturripen, eta Aitor Pildain eta Aitor Jauregik irabazi zuten. Bazkaria egin zuten gero, gaztetxeen bertan, eta 40 lagun inguru elkartu ziren. Jolasen bat egin ostein, kalejiran irten ziren, poteora, dragoi batekin eta banderekin. Eguna Neallta Fola, Material Rechazado eta The Motherfuckers taldeen kontzertuarekin amaitu zen, eta antolatzaileek espero baino jende gehiago agertu zen gauean gaztetxean.



Aretxabaletatik Bizkaira txangoa. 1957an jaiotako hainbat aretxabaleta-rek Bizkaia aldera egin zuten txangoa zapatuan. Argazkia Gaztelugatxen ate-ra zuten. Itsas Mendi txakolindegia bisitatu ondoren, Gaztelura arteko eskailera igo eta gero bertako ikuspegiaz gozatu ahal izan zuten. Bakioko Eneperi jatetxeen egin zuten bazkaria. Talde txikia izan arren, Bizkaiko kostaldea bisitatzu, oso egun polita pasa zutela esan digute.



Gaztaina erre-jana Bedoñaben. Arrasate Herri Eskolako Bedoñabeko Haur Hezkuntzako eta haurreskolako ikasleek gaztaina erre eguna ospatu zuten egunean. Eguraldiak askorik lagundu ez zien arren, Bedoñabeko aterpea aprobaetxatu eta bertan erre zituzten 70 kilo gaztaina, hiru danbolinetan. Jarduera horren bitartez, ikasleei Euskal Herriko hainbat esaera, abesti, hiztegi, aho korapilo, jolas eta ohitura zaharrak irakatsi zizkieten.



hildakoak

- **Seberiano Aiestui Errasti.** Aretxabaleta, azaroaren 8an. 93 urte.
- **Francisca Agirre Ibarroondo.** Bergara, azaroaren 15ean. 82 urte.
- **Esperanza Errasti Idigoras.** Arrasate, azaroaren 15ean. 84 urte.
- **Iñaki Etxebarria Ibabe.** Arrasate, azaroaren 16an. 54 urte.
- **Juan Pedro Bikandi Ibarra.** Bergara, azaroaren 16an. 67 urte.
- **Santiago Azkarraga Zarraoa.** Arrasate, azaroaren 16an. 86 urte.
- **Pedro Zumelaga Ozaeta.** Arrasate, azaroaren 17an. 93 urte.



ESKELAK

GOIENKARIAN eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eugen eguerdia baino lehen:

943 25 05 01

Eskelaren prezioa: 87 euro.
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko

GOIENKARIAN, bietan, argitaratu gero, **100 euro**.

Goienkaria: astero, 45.000 irakurle.

MEZA
**Jose Antonio
Aranburu Agirre**

Oñatin hil zen 2007ko azaroaren 9an, 77 urte zituela.

Haren arimaren aldeko meza zapatuan, azaroaren 24an, 19:30ean, Oñatiako Agustinoen elizan. Bertaratuko zaretenoi, aldez aurretek eskerrak asko sendikoen izenean.

*Eskerrikasko zure kemena ta maitasunagatik
Zure seme-alabak eta bilobak.
Mila esker momentu hauetan gurekin
egoten zareten guztioi.*

Oñatin, 2007ko azaroaren 19an.



ESKER ONA

Juanita Etxabe Arregi
Eugenio Zubizarretaren alarguna

Aretxabaletan hil zen 2007ko azaroaren 14an, 88 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrak asko sendikoen izenezan.

*Luzea eman zizun Jainkoak bizia,
urte hauetan zaindu duzu
zure familia handia.
Betiko gure gogoan egongo zara,
Juanita amama mitia*



Aretxabaletan, 2007ko azaroaren 19an.

zorion agurrak



BERGARA
Ane Mujika
Azaroaren 5ean,
10 urte egin zituen.
Zorionak etxeko
guztien partetik!



ARRASATE
**Naroa Kortabarria
Maskariano**
Azaroaren 13an,
urtetxo bat.
Zorionak eta laztan
bat, familiaren
partetik!



ARRASATE
Josu Azkarate
Azaroaren 14an,
11 urte. Zorionak
eta patxo handi bat!
Aitatto, amatxo
eta Aitor.



OÑATI
Unai Agirre
Azaroaren 14an,
11 urte. Zorionak
eta patxo handi bat!
Aitatto, amatxo
eta Aitor.




OÑATI
Jokin Zubillaga
Azaroaren 16an,
2 urte. Zorionak eta
patxo handi bat,
familixa danan
partetik!



OÑATI
Ander Gaztelu
Azaroaren 17an.
Zorionak eta urte
askotarako, guape-
ton! Laztan haundi
bat zuretako, lagun-
nan partetik.



ARRASATE
**Malen Altube
Sedano**
Azaroaren 17an,
3 urte. Zorionak,
gurasoen partetik.



ARRASATE
**Danel Maillo
Azkarraga**
Azaroaren 17an,
urtebetetzea.
Zorionak familia
guztiaren partetik.



ARRASATE
**Eneko Maillo
Azkarraga**
Azaroaren 17an,
urtebetetzea.
Zorionak familia
guztiaren partetik.




ESKORIATZA
Ane Elortza Cobos
Azaroaren 19an.
Zorionak, printzes!
Muxu handi bat eta
oso ondo pasau
zure egunean.
Familiaren partetik
eta, bereziki,
Mikelen partetik.



BERGARA
Alazne Mujika
Azaroaren 20an,
6 urte. Zorionak eta
muxu bat etxeko
partetik!




BERGARA
Maitane Juaristi
Azaroaren 20an,
10 urte. Zorionak,
potxola, denon
partetik!




Jon Tena Labrera
Antzuola > 3,300 kilo. Azaroaren 13an.
Gurasoak: Marisol (Antzuola) eta Santi
(Antzuola). Argazkian, Jon jaioberria,
amarekin.



Unai Blazquez Jara
Bergara > 3,200 kilo. Azaroaren 13an.
Gurasoak: Tamara (Barakaldo) eta Asier
(Bergara). Argazkian, Unai jaioberria, aita-
ren besoetan.



Zahira Lorenzo Aparicio
Arrasate > 2,300 kilo. Azaroaren 14an.
Gurasoak: Conchi (Arrasate) eta Oscar
(Arrasate). Argazkian, Zahira jaioberria,
lehengusu eta izebarekin.



BERGARA
Ainhoa Zenitagoia
Azaroaren 21ean,
3 urte. Zorionak eta
muxu handi bat,
aitatto, amatxo eta
familia guztien
partetik.



BERGARA
Olatz Diaz Carriet
Azaroaren 21ean,
10 urte. Zorionak,
etxeko partetik!



ANTZUOLA
Miriam Pineda
Azaroaren 21ean,
urtebetetzea.
Zorionak, guraso
eta osaba-izeben
partetik.



Xabier Leibar Beneit
Arrasate > 3,680 kilo. Azaroaren 14an.
Gurasoak: Edurne (Arrasate) eta Miquel
(Bartzelona). Argazkian, Xabier jaiober-
ria, aitarekin.



Miren Bardezi Nieto
Arrasate > 3,410 kilo. Azaroaren 14an.
Gurasoak: Virginia (Bergara) eta Joxerra
(Bergara). Argazkian, Miren jaioberria,
kuman, lo.



Irati Fernandez Herrero
Aretxabaleta > 3,470 kilo. Azaroaren
15ean. Gurasoak: Begoña (Aretxabaleta)
eta Jon (Aretxabaleta). Argazkian, Ira-
ti jaioberria, amarekin.




OÑATI
Irati Olariaga
Azaroaren 21ean,
urtebetetzea.
Zorionak eta muxu
haundi bat, lagunen
partetik.



BERGARA
Andoni Goiti
Azaroaren 22an,
urtebetetzea.
Zorionak lankideen
partetik.



ANTZUOLA
Jennifer Pineda
Azaroaren 22an,
13 urte. Zorionak,
guraso, anai-arreba
eta osaba-izeben
partetik.



Ana Carolina Alves Hurtado
Arrasate > 4,000 kilo. Azaroaren 16an.
Gurasoak: Cecilia (Bolivia) eta Jose (Bra-
sil). Argazkian, Ana Carolina jaioberria,
gustura lo.



Veray Rivero Badiola
Arrasate > 2,800 kilo. Azaroaren 16an.
Gurasoak: Arantza (Arrasate) eta Juan
Carlos (Arrasate). Argazkian, Veray jaiob-
berria, kuman, lo.



Kerman Fernandez Perez
Aretxabaleta > 3,450 kilo. Azaroaren
17an. Gurasoak: Monika (Aretxabaleta)
eta Antonio (Aretxabaleta). Argazkian,
Kerman jaioberria, kuman.




ARRASATE
Xabat Otxandiano
Azaroaren 22an.
Zorionak, mutikote,
lau urte! Putz handi
bat ein beharko
dozu lau kandela
hoiek itxungitzeko.
Patxo potolo bat
etxeko danon
partetik.




BERGARA
Francisco Molina
Azaroaren 22an,
72 urte. Zorionak
eta urte askotako-
ko! Prestatu
pastela!



OÑATI
Markel Barrena
Azaroaren 23an,
2 urte. Zorionak
etxeko partetik,
eta muxu haundi
bat Leire eta
Eiderren partetik.



Ane Ugarte Moron
Arrasate > 3,050 kilo. Azaroaren 18an.
Gurasoak: Josune (Arrasate) eta Done
(Arrasate). Argazkian, Ane jaioberria,
amaren besoetan.



BABESLEA



Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

Marino Lejarreta > Txirrindulari ohia

"Asko gustatzen zait aparatuak konpontzea"

IKER BARANDIARAN > ARRASATE
Jende askok gogoratzentzutzen du oraindik Marino Lejarreta. Txirrindularitzaren lehia utzi zuela 12 urte pasatudiren arren, jende gehienak ezagutu egiten du kalean, eta berak lortutako garaipen eta erronak gogoratzentzutzen ditu.

Mutikotan, zenbat bider hartu zuenion bizikleta aitari?

Askotan. Anaiek bizikletak zitzuten, eta neuk oraindik ez. Hortaz, haiekin joan nahi banuen, ez zegoen beste aukerarik. Kostata iristen nintzen pedalera. Gogoan daukat anaieren lehenengo bizikleta, Gorbea, heldu zenean, txundituta gelditu ginela etxeen. Bizikleta berriaren usaina...

Noiz eta non ikasi zenuen igeri egiten?

Hogeita piku urterekin, beste txirrindulari batzuekin Kanariar uharteetara oporretara joaten hasi ginenean... Lehenengo, gerriko arte; gero, ur gainean egoten ikasi nuen... Gerora, istripua izan nuenean, asko igeri behar izan nuen, baina aspergarria da.

Aspaldi, Maisutza Elektronika ikasi zenuen. Premiarik izango bazenu, egingo zenuke lana horretan?

Bai. Ikasten hasi nintzenean, ez neukan oso argi, baina gero, zaletu egin nintzen. Teknika oso gustuko dut, eta baita aparatuak konpontzea ere. Ikusten dut nire burua lan hori egiten.

Goi Ingeniaritzaritza egitekotan izan zinen...

Bai, baina txirrindulari profesional izateko aukerak nituen, alboratu egin nuen hori.

TEST-A

Herria: Berri. **Adina:** 50 urte. **Ikasketak:** Maisutza Elektronika. **Zaletasunak:** Bizikleta, menedia eta eskiatzea. **Bete duzun amets bat?** Garrantzitsuena, seme bat edukitzea. **Eta betetzeeko dau-kazuna?** Everestera igotzea, nahiz eta jakin dagoeneko ez dudala inoiz egingo. **Nora egingo zenuke bidaia bat?** Hego Polora. **Bizi iza-teko leku bat?** Euskal Herriko edozein. **Hartu duzu denboraldiko forfalta?** Oraindik ez (barre).

Profesional hasi eta gutxira, soldadutzak eten zuen zure ibilbidea. Gogorra izan zen soldadutzatza?


Fisikoki, ez, baina moralki, bai. Ez dut inoiz hori ulertu. Soldadu izan gura duena joan dadi; eta besteak, bakean uzteko. Nire bizitzako urte bat galarazi zidaten.

Askotan, pelotoi atzean ikusi zaitugu. Zergatik?

Bai, lasaitasunagatik joaten nintzen atzealdean. Erdian joatea oso deserosoa da, bultzatuko zaituztenedo. Esperientzia nahi-koa neukanez, banekien noiz aurrera joan.

Zuk ia telebista kamera bariko lasterketak ezagutu zenituen. Telebistak on edo kalte egin dio txirrindularitzari?

Nik uste dut positiboa izan dela telebista txirrindularitzara hurbiltzea. Horren ondorioz, gehiago irabazten hasi ginenean, eta lan egiteko erraztasunak ekarri zituen. Bestalde, abentura kutsua kendu zion; eta orain, produktitatea da helburua.



ARRASATE Marino Lejarreta, Arrasaten.

IKER BARANDIARAN

www.goina.net

Informazio "arrosa" delakoa -aldizkariak, telebistako saioak-kontsumitzen duzu?



biharamuna

Juan Kruz Mendizabal

Bizkarra eman


Bai erraz ematen diogula bizkarra gustukoak ez ditugun gertakizunei! Zein erraz aldatzen dudan telebistako katea atsedena zapuzten duen Kanariar uharteetara iritsi berriak diren kaiuko horiek ikustean! Zein gureak diren kontrako eztarritik sartzen zaizkigun berri txar horiek! Zein ahaztuak ditugun etxea gogoz kontra utzi eta bakardean dauden atxilotuak! Zein erraz murgiltzen garen erosotasunaren aulkia gozo horretan...

Isilean dauden Santa Agedako gai-xo mentalak bisitatzen joan ginenean, eta bueltan, jabetu nintzen zein erraz igaro dezakegun burua



argi izatetik burua nahastearen bestaldera. Zein erraz ahaztu ditugun behin joan eta itzuli ez ziren haien, zein erraz bizkarra eman diegun osasuna eta itxura uretan zainduz eta iraganaren ganbaran utzi ditugun herriko gaixo horiek. Bisita horrek erakutsi dit zein ahulak garen, argi egotearen arrastoa jabetu gabe gurutzatu dezakegula noizbait eta herriko plazan noizbait jolasean ibili ziren ume horiek nolako arintasunez ahaztu ditugun. Horiek gureak izaten jarraitzen dute, hain hurbil eta hain urrun, guztiar ardura eta hurbiltasuna merezi dute. Ez diezaiegun bizkarra eman.

eguraldia



MINIMOA

+03

MAXIMOA

+15

Hegoaldeko haize bizia, egunaren bukaeren zakarragoa. Ostartekak eta hodeiak tartekatuko dira, eta euria ere egin dezake.

www.euskalmet.euskadi.net

Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

ABESTIAK POLIFONIKOAK (SMS 1)
Abestien izena (Abeslaria) | **KODEA**

POL-ROCK
Aitormena (Hertzainak) | **AITORMENA**
Aizkorri (Kortatu) | **AIZKO**
Amore amore (Kairideko benta) | **AMORE**
Askatasun egarritz (Lin Ton Taun) | **ASKATA**
Beigak okertutu (Lin Ton Taun) | **BEGIAK**
Bi Minutero (Hertzainak) | **BIMINU**
Dub manifest (Fermín Muguruza) | **DUB**
Eguinero (Hertzainak) | **EGUNERO**
EH Sukarru (EH Sukarrak) | **SUKAR**
Elos dicens miera, nosotros amen (La Polla) | **ELLOS**
Emamadoro de la muerte (RIP) | **ENAMO**
Entzuidauza (Aterking's) | **ENTZU**
Etorzikuna (Etaiaik) | **ETORKI**
Ezer ez da betiko (Ken7) | **EZER**
Gora Hernia (Nego Gornak) | **GORAK**

WEBGUNEAN www.smsoinu.com

SOINUAK: Bidali, SOINUE hutsunea
ABESTIAK: Bidali, SOINUP hutsunea
LOGOAK: Bidali, SOINUL hutsunea
JOKOAK: Bidali, SOINUJ hutsunea

KODEA
KODEA
KODEA
KODEA

5767
zenbakira

SMS bakoitzeko:
1,2 € + BEZA

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

LOGOAK (SMS 1)
KODEA

SATANAS EH2 SORGIN4 AIZKORAK

TARTALO IKURRIÑA I ORA BABAK

BASAJAUN IKURRIÑA LAU2 ARRANAK

OHARRAK
1. BATERAGARITASUNA: Registratu zure poltsikoko telefonorako bateragaria den eskanitzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragari

Bertan jasoko duzu beharrezko duzen informazio guztia.

2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezko da GPS sistema aktibatzea izatea, GPS sistema aktibatzearekin, jar zaitetzu zure horriztalearekin hamarrenetan. Alba ematea doan da eta Ko jatsiera bakanik ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan dela eta GPS sistemaren alba ematea doan da.

* Euskalnet deitu 900 02 00 00 telefonoa / Vodafone: deitu 123-ra. / Movistar deitu 609-a.

3. ZALANTZAK: Ez bezero jasotzen duzu, jarri gurekin kontaktua: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonoa.

4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurriaren ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honefan kalera eta erabilizalzeek esku ditzakezeta nahi baduzu, jarri gurekin harremantzen eta deitu 902 01 21 48 telefonoa.

Hator Bel-Air (Bide Ertzean) | **BELAIR**
Haizea (Kent) | **HAIEZA**
Hegal egiten (Itziz) | **HEGAL**
Ikusi (Delirium Tremens) | **IKUSI**
Ilargia (Ken7) | **KEN**
Inpernuen ate joka (Gatiburu) | **INPER**
Jokin Uraini Hitzaik (Bide Ertzean) | **JOKIN**
Kaiko (Urtz) | **KAXKO**
Lau Telatu (Itziz) | **ITOIZLAU**
Laztana (Latzen) | **LATZA**
Lotuta egon arren (Kokein) | **LOTUTA**
Loretxo (EXKKU) | **LORE**
Marea Gora (Itziz) | **MAREA**
Musturrek sartunde (Gatiburu) | **MUSTURREK**
Nicaragua (Kortatu) | **NICA**
No time for love (Hertzainak) | **NOTIME**

TRIKITIXA
Bexamela ta pastela (Maixa ta kiar) | **BEXAMELA**
Bokespok (Kepa Junkera) | **BOKESPOK**
Hik Ian eta nik jai (Tapis) | **HIK**
Itsas ontzi baten (Kaxiano) | **ITSAS**
Kupela (Epelde eta Larrainaga) | **KUPELA**
Mila galdera (Alaitz / Maider) | **MILA**
Nirekin (Gozategi) | **GOZATEGI**
Ny Hirahira (Kepa Junkera) | **HIRA**
Txanpon batzen truke (Alaitz / Maider) | **TXANPON**